

**Alkarrizketea Lemoako Larregi taldeari Banden Lehia irabazi eta gero**  
12. orrialdea

## Arkaitz Estiballes finalean

Zeanurin bizi dan Arkaitz Estiballes abenduaren 20an Bilbon jokatu dan Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalean izango da; abenduaren 7an Amorebieta-Etxanoko frontoian jokatu atzen finalurrekoa irabazi eban eta. Bizkaiko txapeliduna bera da eta txapela defendiduko dau Bilbao Arenan. 13. orrialdea



**XV.-XVI. mendeko lehia gotikoa agertu da Ipiñaburun**  
13. orrialdea

TOKIKOM

# begitu

arratia ubide zeberio

# 220

2014ko abenduaren 15a  
hamabostekaria  
www.begitu.org

## Gabonetarako ehun proposamen inguru

Gabonak eta urte amaiera ospatuteko eta urte barriari hasikerea emoteko, aisialdirako ekitaldiz betetako egitarauak prestatu ditue udalak eta alkarteak. Bertan, ondo pasetako ehun aukera baino gehiago dagoz. Umeen ilusinoa biztuko dau Olentzerok herri guztietan. Lehenengotik kantuan ibiliko dira umeak eta nagusiak auzuneetatik eta gero Olentzero etorri eta berari opariak zuzenean eskatzeko aukerea eukiko dabe txikerrenak.

**P**ailazoak egongo dira Igorren, magia ikuskizunak Bedian eta Lemoan, ipuin kontalariak Ubiden, jolasak eta tailerrak, txangoak eta abar, herri gehienetan.

Nagusientzat be eskeintza handia dago. Historia tai-

lerra Arantzazun; bertsolaritzearen gaineko berbaldiak Diman eta Zeanurin; zinea Bedian, Igorren, Zeanurin eta Zeberion; antzerkia, kontzertuak, mendira urtekerak eta lasterketak dira Gabon inguruko egunetan egiteko eratu diran ekimentako batzuk. 5. eta 6. orrialdeak



Olentzero.

### LEMOA

## Udal Funtzionario bik urigintza proiektuetan parte hartu izana salatu dau Bilduk

Saioa Elejabarrieta, Lemoako alkateak, eta Aitor Erauzkin alkateordeak adierazo dabe Pozuetako industrialdeako biparzelazioan udal funtzionario bi -horreetako bat Udal Idazkaria- "onuradun" izan zirala eta euren portaera "legearen kontrakoa izan daitekela", administrazio publikoko langileen bateraezintasun legedia urratu daberen zantzu oso argiak dagozalak. Hori dala eta, informazio guztia fiskaltzearen esku itxiko dau EH Bilduk.

Adierazpen honek abenduaren 4an, El Mundo egunkarian agertutako informazioaren harira egin eben Lemoako Bildukoak. Idazkariak ukatu egin dauz salaketa horreek eta Udal Batzan bere burua defendiduteko aukerea eskatu dau. 6. orrialdea

### ARRATIA

## Arratian egindakoa Arratian konsumiduteko topaketak

Igitiek, Arratiako nekazari agroekologikoen alkarteak, Arratiako Elikadura Subirautzaren IV. Topaketak antolatu ditu hilaren 19 eta 20rako, Igorren. Bestelako konsumo eredu bat bultzatzeko, dokumentala, azokea, bazkaria eta abar antolatu dabez. Arratian atzen urteotan hirukoiztu egin da produktino agroekologikoa eta arratiarren ohituretan bertako produktuak konsumiduteko konzientzia sortzea daukie helburu topaketa honek. 7. orrialdea



## IRU - DEKO FERRETERIA

- Alfonso Molina da dendaren arduradun barria
- Saltoki hau Juan Bonal fundazioaren laguntzailea da

Agirre Lehendakaria 9 • Igorre  
94 673 61 92 • irudeko@outlook.es

### ARRATIA

## Arratiako ondare materiala eta inmaterialari erreparatxo

Angel Larreak, Arratia Institutuko irakasleak, "Arratia marka"ren gaineko hausnarketea egin dau. "Zer da Arratia marka? Arratia sentidutea, hau da, Arratiako historia, tradizioak, euskera edo inguru naturala, besteak beste, zaindutea eta maitatutea" dino eta 2000. urtea abiapuntu lez hartuta ondare materiala eta inmaterialaren erreparatxo egin dau. 8. eta 9. orrialdeak

# iratxo

## Umeen oinetakoak

16 zenbakitik 40ra



OLABARRI, 5 IGORRE - TELEFONOA 946 559 324

## ARRATIA ZURI-BALTZEAN

## BEREZIARTUA ANAIK, ARRATIAKO LEHEN ARGAZKILARI PROFESIONALAK (I)

Felipe Manterola zeanuriztarra Arratiako argazkilaritzaren aurrendaria izan bazan, bailarako lehen argazkilaria profesionalak Bediako Bixente eta Iñaki Bereziartua anaiak izan zirala esan daiteke. 1949an egin eben lehenengo lan profesionala eta ordutik jubilaziora arte ibili ziran argazki makina aldean hartuta herririk herri, bateorik bateo, eztegurik eztegu.

Argazkilaritza zaletasuna Bixente anai zaharrarengan biztu zan, Afrikan soldadiskea egindako lagun batek ekarri eutsan makine-

agaz bere lehenengo erretratuak egiten hasi zanean. Sasoi haretan Bixentek Ramon Mimentza kontratisteagaz egiten eban behar listero moduan, baina aldi berean argazkizaletasuna garatzen eban ordu libreetan. Auzoko Zenarruzabeitia familiakoak Venezuelara emigretako izan ziran egin eban lehenengo erreportaje serioa Bixentek, 1949ko zezeilean.

Laster ipini eban laborategia bere etxean, Bediako Estarta baxerrian, eta bertan errebelautako lehenengo argazki-lana Bediako

Maria Arteta eta Urkuzuko Iñaki Zugadiren ezteguak izan zan. Erreportaje honetan Bixente Bereziartuak Bilboko Foto Espigaren laguntza izan eban. Bien bitartean Iñaki 13 urteko anaia gazteak Bixenteri laguntzen eutsan, eta holan apurka-apurka ofizioa ikasi eban.

## Fotografias Bereziartua Zornotzan

Argazkilaritza ogia irabazi ahal zala ikusita, 1954an Fotografias Bereziartua estudioa zabaldu eban Zornotzan Bixentek. Aldi haretan Bilbo eta Durango bitartean eurak ziran argazkilaria bakarrak, Galdakaon be ez egoan erretra-



Iñaki Bereziartua, "Foto Beri", eskoiko lehenengoa.

tistik. Alde batetik bestera joateko Lube 99 motorra erosi eban Bixentek eta hemezortzi urte bete

ebazanean Osa bat erosi eban Iñakik.

Jon Urutxurtu

## TELEFONO INTERESGARRIAK

## Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
S.O.S. DEIAK 112

## Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara

## Abenduaren 15etik 21era

Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g  
Tel.: 94 631 39 50

## 22:00etatik 09:00etara

Guarrobena. Amorebieta-Etxano.

## Abenduaren 22tik 28ra

Rodriguez Martinez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27  
Tel.: 94 673 61 09

## 22:00etatik 09:00etara

Goiria-Montoya. Amorebieta-Etxano.

## Abenduaren 29tik urtailaren 4ra

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1  
Tel.: 94 673 93 95 eta 609 402 908

## 22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano.  
Zeberioak ez dau guardiarik egiten.

## Urte osoan

## 22:00etatik 09:00etara

Lucia Luño. Kareaga Goikoa 16. Basauri.

## Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

## Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

## Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

## Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

## Parketxea

94 673 92 79

## Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

## Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

## Trenak

Euskotren 902 543 210

## Bizkaibus\* 902 222 265

## Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

## Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

## Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengoa 22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30 minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean Galdakaoraino.

## Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

## Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

## Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

## Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

## Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

## Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

## Artea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta 20:00.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

## Bilbo-Artea

Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45.

Zapatuetan ez dago 05:45ekoa.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

## Zeberio-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15 eta 17:45.

Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 08:15, 11:15, 14:15, 17:15 eta 20:15.

## Bilbo-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15 eta 16:45ean.

Jaiegunetan (Arrigorriagatik): 10:40, 13:40, 16:40 eta 19:40ean.

## La Union\* 94 427 11 11

## Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandioak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandioak 18:30ean.


## Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta Otxandioak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandioak ez dago.

## Babesleak:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia  
Kultura Saila  
Departamento de Cultura



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

Webgunea: www.begitu.org

Zuzendaria: Iñigo Iruarrizaga.

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Erredakzino taldea: Ainhoa Duñabeitia, Irati Urien eta Jon Urutxurtu.

Maketazinoa: Iñigo Iruarrizaga.

Publizidatea: Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Marta Rodriguez, Pablo Rodriguez eta Rut Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte (Dima), Azibar Sagarna eta Iraitz Sagarna (Igorre) eta Ainhoa Mendia eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tiradea: 6.800 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.



## ZEURE BERBEA

### Gabonak datoz

Gabonilan sartu gara eta Gabonak gaine-gainean daukaguz, udagoien giroa desagertuz euriak hasi dira. Kaleak apaingarriz eta argiz bete dira eta Gabon usaina jatoriku.

Umeak, gaztetxoak gogotsu etxoten dabez Gabon jaiak. Oporrak daukiez, Olentzero dator eta opariak daukiez buruan. Badago Artean bikotetxo bat, lehenengoz biziko dauzana jaiak hemen eta gure ohiturak ezetuko dauzana. Aurtengo Gabonak zoragarriak izango dira primeran pasauko dabelako euren gurasoakaz. Maitasun giroan dagoz eta familia on bat osotuten dabe. Ongi Etorri bikotetxo eta Zorionak, berriz be, gurasoai.

Nik familian pasauko dodaz Gabonak, inguruan jente asko falta jata baina jaiak ondoen pasetan ahaleginduten naz. Jaten, abesten eta karta jokoan pasetan dira Gabon jaiak. Atzen urte bietan, familian umetxo bat daukagu eta gure iratxo da. Beragaz egotea terapia onena da. Bera eta bere irribarrea ikusteagaz batera penak alboratu egiten doguz eta momentua zoragarria bihurtzen da.

Edadekoak be Gabonetarako prestatu behar dira eta Zeanurin hor daukadaz izeko Elene, izeko

Lucia, izeko Dionisia eta izeko Josefina prest Gabonak familian igaroteko baina eurak altxorrik preziaduen daukie, etxekoen maitasuna. Gabon zorientsuak lauroi.

Gaixo eta edadekoai be Gabon zorientsuak opatu gura deutesdaz, jai onak ospatutea lortuko daben itxaropenagaz.

Gaixoak beti dodaz gogoan eta Koldo lehengusua askotan egon da nire eskaeretan. Koldo joan jaku eta agur bero bat eskeini gura deusat. Eleizkizunetara jente asko hurbildu zan eta tixtu, jantza eta bertsoakaz agur hunkigarria izan eban. Familia maite eban eta euren maitasuna izan dau gaisotasunean be. Musu bana Karmele bere emazteari, Kimetz eta Iraitz semeai, izeko Elene bere amari eta Arantza eta Karmele bere arrebai.

Etxekoak eta familia maite izan dozuz, euskera eta Euskal Herria gogoan izan dozuz. Orain heriotzeagaz askatasuna lortu dozu, zorientasuna eta bakea benetan merezi dozuz.

Mosu bat.

MERTXE EMALDI

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, begituk eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera.

## GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

### Baragarri



Adjetibo, adberbio edota izen moduan erabilten da baragarri berbea (baragárrie, agoskatuta). Onak ez diran edo onurarik ez daben gauzak izendatuteko erabilten da. Esaterako, baragarriak dira "g" konsonanteagaz hasten diran berba honeek: gaixoa (gaixotasuna), gerrea eta gosea. Gaixoa berez da baragarria, beste biak ostera, gizakiak eragindakoak dira. Horrexegaitik, kaltea egin leiken personeari edo eguraldiari be baragarria esaten jake. Lehenagoko kopla eta ipuinen arabera be, "gauekoak" personaje baragarriak izaten ziran.

## ERETXIA

### Personengandik gero eta hurrago

**A**rratiako Gurutze Gorriaz berba egiten dogunean Arratiakoa dala azpimarratu gurako geunke lehenik eta behin, Gurutze Gorria nazinoarteko mobimentu humanitarioa bada be, aspalditik dago-eta geure bailaran. Izan be, oraindino soldadiska egitea mutil gazteak eukien betebeharra zanean, konzientzia-eragozpena adierazota etxean geratuteko aukerea emoten eutsen erakunde honek, eta gure inguruko herrietan ospatzen diran kirol ekimenetan be egoten da bere laguntzea eskeintzen. Hori da eta, hain zuzen be, Gurutze Gorriaren helburu nagusia, giza bizitza eta osasuna babes-tea, gizaki guztiakanako errespetua ziurtatuz.

Denporak aldatu egin dira, aurrerapausu garrantzitsuak egin dira giza eskubidei jagokienean eta, jada soldadiska ez da mutilak derrigorrez egin behar daben zerbaist, baina arazo barriak agertu dira. Urteak daroaguz mundu mailako krisialdi ekonomiko baten murgilduta. Gurera beranduago heldu zala emoten dau baina heldu zan atzanean, eta bitarte horretan beharizanak bultzaturik etorkizun baten bila ebilzan hainbat familia be etorri zan.

Gero eta persona gehiago dago gure inguruan lan barik, beharizan egoeran, eta Arratiako Gurutze Gorriaren ezin deutesdaz egoera honeri bizkarra emon. Hau guztiau dala eta, Arratiako Mankomunidadeagaz sinatutako hitzarmen baten bidez, behar daben persona guztiai laguntzea eskeintzeko proiektuak ipini doguz martxan atzen urte honeetan. Krisi sasoi honetan ahulago agertzen diran giza-taldeai zuzendutako proiektuak alegia, bakarrik dagozan adinekoai zuzendutakoak, gazte eta umeen eskubideak ziurtatzera zuzendutakoak eta, zelan ez, beharizan larriak sufriduten

### GURUTZE GORRIA

Lehendakaria eta teknikari taldea

dabean bertako eta kanpoko familiei zuzendutako proiektuak, Arratiako Gurutze Gorriarentzat lehentasuna dalako gizaki guztien sufrimentua prebenidu eta arintzea, jatorria zein dan ardura barik.

Gurutze Gorriaren helburua zaurgarriak diran personengandik ahalik eta gertuen egotea da, hondamendi eta larritasun egoeran dagozengandik, baita arazo sozialak zein ingurumen arazoak dabeanengandik be, gure laguntzea eskeiniz eta euren garapena ahalbidetuko daben ekintzak burutuz. Ekintza honek guztiak boluntarioen bitartez egin dira, andre eta gizon arratiarrak, gazteak eta horren gazteak ez diranak, euren denporearen zati bat emoten dabe ondoan daukiezanak laguntzeko.

Gurutze Gorriaren konpromisoa personengandik gero eta hurrago egotea da eta Arratiako Gurutze Gorriak arratiarrongandik gero eta hurrago egon gura dau. Arratiako bolondresai esker betidanik egon da gure artean, eta eurei esker gure artean jarraituko dau.

**BATZ** 50 urte

BATZ, S. KOOP.  
Torrea auzoa, 32  
48.140 IGORRE (BIZKAIA)

IZAN GINAN...  
...BAGARA ETA IZANGO GARA

Endakari Batzua jaiak

MONDRAGON

## LUMATUTEN

JOSE MARI  
KORTAZARArratiako  
organistak

Bai hileta tristea! –esan eus-  
tan lehengo egunean lagun  
batek.

-Bueno, hiletak normalean  
tristeak izaten dira –erantzun  
nik.

-Bai, baina organo barik... birri-  
tan tristea!

Arrazioa eukan. Organistea  
gaixorik egoan eta hileta haretan  
organoak ez eutsen lagundu  
kantetan kantariari eta herriari.

Sarritan pasetan jaku. Niri bai  
sikeran. Daukagun artean, ez  
konturatu ez eskertu. Falta jata-  
nean, orduan botaten dot faltan.

Organo ederrak daukaguz  
Arratian. Zeanurikoa, 1910.  
abuztuaren 15ean inaugurata,  
15.000 pezeta ordainduta, Lo-  
pe-Alberdi zoragarri bat. Areat-  
zakoa be Lope-Alberdi bat da,  
1913. abuztuaren lehenengoan  
inaugurautakoa. Bediakoa eta  
Arteakoa oraintsu zaharbarrituta  
dagoz. Lemoa, Dima eta Igorren  
be badira organoak.

Nire ezagun batek sarri esaten  
dau herri txikien orkestra sinfo-  
nikoak zirala. Sasoi haretan gatxa-  
goa zan Bilbora biajetea orkestra  
bat entzuteko, baina herriko pa-  
rrokian baegoan aukerea hamaika  
tresna musikal entzuteko.

Ez dogu ondo aprezietan orga-  
noaren balioa. Esate baterako, gure  
herri baten jazotakoa da hau: herri  
horretan, musika eskola bikaina  
eukita, gurasoak bertara bialtzen  
dabez umeak musika ikasten;  
tresnak erosten be ez dabe gitxi  
gastetan. Ba, behin, herrian bertan,  
organo kontzertu bat egon zan, eta  
ume eta gurasoak kontetako na-  
hiko ziran esku bietako atzamarrak.  
Gure kontraesanak dira.

Baina gaurkoan txalotu egin gura  
neukez organistak; euren bizitza  
planak egokitzen dabezanak dome-  
kako eleizkizunean laguntzeko edo  
ta auzokoari hiletan agur egiteko.

Txalotu gura neukez gaur egun  
laguntzen debezanak: Paben  
Bedian, Ane, Iñigo eta Juanjo  
Lemoan, Ismael Diman, Rafa  
Igorren, Edurne eta Juanma Ar-  
tean, Miren Areatzan, Karmele eta  
Eusebio Zeanurin.

Eta orain organo konpontzaile  
batek be jarri dau bere lantegia  
Arratian: Alejandrok, Igorren hain  
zuzen be.

Organo musikea be gure onda-  
rea da. Jaso eta jagon.

Eskerrik asko guztioi!

## ZERTZEAN



## ILLART GUMUZIO

1

Agur betiko! Bi mila eta  
hamalagarren urtea  
laster emongo jako honeri  
puntu eta apartea  
tokatu jata bertsootara  
laburpen bat ekarte  
urte ederra izan dan arren  
asko izan da kaltea.

2

Urtea ondo deskribatzeko  
hitza da ustelkeria  
Andorra eta Suitzan gordeta  
kapitalaren erdia  
batzuek boltsak beteta dabez  
besteontzat: miseria  
egunen baten jakingo dogu  
gertatukoan egia.

3

Sentitzen dira ahalguztidun  
sistema honetan jabe  
"Ley Mordaza" be sartu deuskue  
birritan pentsatu gabe  
eskubideak kendu deuskuez  
guri suabe-suabe  
beraiezako deseroso dan  
dana debekatzen dabe.

4

Indarkeria matxistan ere  
biktima asko dauz aurren  
urterik urte hainbeste dira  
holan dabezanak hiltzen.  
Arazoa da larriagoa  
ta hori behar da eten:  
gure artean matxismoa dau  
ta ez dogu ezer eiten!

5

Urte honetan hainbeste izan  
direnez kaleratzeak  
etxe huts asko genduzan lehen  
oin osteras asko + 1  
gehiegi dira kale gorrian  
parau diren familiak.  
Injustizia honin aurrean  
hartu daiguzan kaleak.

6

Bi mila eta hamalau "txar" hau  
ez bada joan be, kasi  
nahiz eta txarra soilik azaldu  
dana ez dogu desgrazi  
buelta bat emon daiogun honi,  
hurrengorako ikasi.  
Urte zaharra ondo amaitu  
barrie hobeto hasi.

## BEGI TXINDORRA

Laster da neguko solstizioa, Gabonak beraz, eta egutegiaren ara-  
bera be urte hau amaitu eta barri bat hasiko dogu laster. Balan-  
tzeak eta planak egiteko momentua da. Geure egoerearen diag-  
nostikoa egin, zer aldatu gura dogun pentsau eta etenbako aldaketea  
dan bizitza honetan beste pausu bat egiteko indarrak eta ilusinoak  
batzeako momentu ona da. Desio, gogo eta nahi guztiak Olentzerok  
jasoten ditu bere zakuan. Datorren urtean, seguru asko, gogor egin  
beharko dogu behar geure ametsak beteteko, beste batzuekaz alkarla-  
nean eta aliantzak egiten. Danontzat indarra eta ilusinoa ekarri dagiala  
Olentzerok.



**Gorosti** Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
gorosti@gorostiscl.com

**agoa** Ortodontzia  
Implanteak  
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa  
Ondarribia

Bidebarri 1. behea  
48140 Igome-Bizkaia  
T. 94 631 50 39  
Kalejatu Zirkulu 100  
R.P.S. 21/06

**FISIOTERAPIA** Grupo Sasoi bide  
Balneario Areatza

Tania Fernandez Santiago  
COL. 1718

www.gruposasoi bide.com Tel: 94 657 54 50



## ARRATIA

# Gabonak, kalera urteteko sasoia

Escolako umeak oporretan aspertu ez daitezana eta nagusiak eguneroko errutineagaz apurtu dagien ekintzaz betetako egitarauak eratu dabez Arratia, Ubide eta Zeberion. Gabon Egunean, urtero lez, umeak Olentzerogaz egoteko aukerea izango dabe eta gura dabezan jostailuak berari eskatzeko aprobetxauko dabe, duda barik. Gainera, Gabonetako Umeen Parkeetara txangoak, pelikulak, kontzertuak, kirola... hainbat aukera dago ondo pasetako.

### Erredakzinoa

#### Arantzazu

##### Abenduak 23, martitzena

11:00etatik 13:00etara ludotekea 6 urtetik gorakoentzat.

##### Abenduak 24, eguaztena

12:00etan, herritik kantetan; ondoren Olentzerok opariak ekarriko dauz. Gaztainak be egongo dira.

##### Abenduak 27, zapatua

18:00etan, Isaak Atutxaren eskutik tailerra "Arantzazuko historia baterako materialak" erabilera anitzeko lokaletan. Tratauko diran gaiak; Arantzazu Arratiako historian; San Pedro eleizea/San Fausto ermitea; elizatea; antxinako ogibideak; fogerak, zentsoak eta padroiak.

##### Abenduak 29, astelehena

11:00etatik 13:00etara, ludotekea 2 eta 5 urte bitarteko umeentzat.

##### Abenduak 30, martitzena

Urtekerea Gabonetako Umeen Parkera.

#### Areatza

##### Abenduak 22, 23, 29 eta 30

17:30etik 20:00etara, pelikulak, jokoak eta abar ludotekan.

##### Abenduak 26, 27, urtailak 2 eta 3

18:00etatik 21:00etara, bideoak, mahai-jokoak, lehiaketak eta abar Gazte Lekuan.

##### Abenduak 24, eguaztena

17:00etan, Guraso Elkarrekin antolatuta, Olentzeroren etorrerea plazan.

##### Abenduak 30, martitzena

19:30ean, Areatzako Musika Bandak, Urte Amaierako kontzertua, eleizan.

#### Artea

##### Abenduak 22, 23, 29 eta 30

11:00etatik 14:00etara, ludotekea.

##### Abenduak 24, eguaztena

17:00etan, plazatik urtenda auzoz auzo Olentzero abestu. Ondoren gaztainak.

#### Bedia

##### Abenduak 19, barikua

Gabonetako jaia. 17:00etan, magia

ikusbizuna; 18:00etan, korru jantzak, Bediako korru-jantzen taldea eta euskal jantzak umeen taldeagaz; 18:30ean, zumba maratonia; 19:30ean, txorizo eta turroia banandutea, Elexalde jubiladuen alkartearen eskutik.

##### Abenduak 22, astelehena

17:00etatik 19:00etara, Gabonetako tailerrak ludotekan.

##### Abenduak 24, eguaztena

09:30ean, plazan hasita auzoz auzo kantuan; 13:30ean, Olentzero plazan umeak egoteko. Gaztaina erreak.

##### Abenduak 29, astelehena

10:00etan, urtekerea Gasteizko Gabonetako Haur Parkera eta izotz pistara.

##### Abenduak 30, martitzena

17:30ean, Gabonetako pelikulea ludotekan.

#### Dima

##### Abenduak 23, martitzena

19:00etan, Bertsolaritza genero ikuspegitik. Ainhoa Agirreazaldegia, Gaztetxean.

##### Abenduak 24, eguaztena

17:45ean, Olentzero. Eleizako arku-petan.

#### Igorre

##### Abenduak 19, barikua

17:30ean, pailazoak *Tomaxen abenturak*. Lasarte Aretan.

19:00etan, Igitiek antolatuta, bideo emonaldia: *Bide berriak, elikadura burujabetza Euskal Herrian* Kiñu Gaztetxean. Ondoren trikipoteoa.

##### Abenduak 20, zapatua

11:00etan, Igitiek antolatuta, Arratiako Elikadura Subirautzaren IV. Topaketea. Azokea, konbidau bereziak, umeentzako txoxongiloak, jatekoa eta edatekoa. Goiko Plazan.

16:30ean, Igorreko Eskupilota taldeak antolatuta, Igorre-Lemoa lehia, hainbat pelota partidu. Kiroldegian.

##### Abenduak 21, domekea

09:30ean, Motxoganean antolatuta Turroi Eguna Garamendin.

19:00etan, Arantzarteren 40. urteurrena, Bilboko Udal Txistu Banda

Lasarte Aretan.

##### Abenduak 24, eguaztena

12:00etan, Olentzero Mikeletik

##### Abenduak 26, barikua

10:30etik 13:30era, eta hilaren 29ra arte, Arratiako Gurutze Gorriak antolatuta. *Munduari Jira Bira*, umeentzako Gabonetako programea. Ludotekan

20:00etan, AMEk antolatuta, Zeani Antzerki Taldea Lasarte Aretan.

##### Abenduak 27, zapatua

18:00etan, Arantzarteren 40. urteurrena Jantza saioa kiroldegian

20:30ean, Luis Iruarizaga eta Zorrotza Abesbatzak Lasarte Aretan.

##### Abenduak 28, domekea

17:00etan, zinea umeentzat *Friends* euskeraz. Lasarte Aretan. 19:30ean, zinea nagusientzat *Lasa eta Zabala*. Lasarte Aretan.

##### Abenduak 29, astelehena

17:00etan, Jostailuen feria, Zaztaparrak, Maratu gazteak eta Eizu Kiñuren eskutik. Lasarte parkean.

##### Abenduak 30, martitzena

11:30etik 13:30era eta 16:30etik 19:30era, Gabonetako Umeen Parkea eta Zaztaparrak tailerrak aterpean.

##### Abenduak 31, eguaztena

VI. San Silbestre lasterketea. Mozorrotuta. 11:00etan izen emotea. 11:30ean hasikerea.

##### Urtailak 2, barikua

19:00etan, Arratiako Bertso Eskolak antolatuta, *Irudibertsotan: bertso eta marrazki ikuskizuna* Lasarte Aretan.

##### Urtailak 3, zapatua

19:00etan, Areatzako Banda. Errege-netako kontzertua, Lasarte Aretan.

#### Lemoa

##### Abenduak 18, eguena

10:00etan, JB Eguzkitza Meabe ikastetxeak antolatuta, Gaztaina Eguna eskolan.

##### Abenduak 19, barikua

JB Eguzkitza Meabe ikastetxetik udalxera Olentzero eta Maridomingi eroan eta ikuskizuna eskolan

##### Abenduak 23, martitzena

17:30ean, Gabon kantak eta txokolatea Jandonizen.

##### Abenduak 24, eguaztena

11:00etan, auzorik auzo Olentzerogaz Gabon kantak. Elizondon salda eta txokolatea. Elizondoko Kultur Gunean Olentzerogaz egoteko aukerea.

##### Abenduak 26, barikua

19:00etan, magia poteoa Txorro eta Tor magoakaz. Kodigoa tabernatik.

##### Abenduak 30, martitzena

11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara, Gabonetako Haur Parkea kiroldegian. 18:00etan, zirko ikuskizuna.

##### Abenduak 31, eguaztena

12:30ean, Eneko Zamalloa memoria. Lemoako IV. Gabonetako Lasterketea. Elizondon.

## MUNDUARI JIRA BIRA

Umeentzako gabonetako programa



**Abenduak 26-27-28-29**  
**10:30-13:00**

#### Ubide

##### Abenduak 20, zapatua

16:30ean, Olentzerori gutuna eroan. 17:30ean, gaztainak eta txokolatea. 18:00etan, Behinola ipuin kontalariak *Amonaren sutondoko ipuinak* aurkeztuko dabe.

##### Abenduak 24, eguaztena

19:00etan, Olentzeroren bila. 20:30ean, Errigora kutxen zozketea.

#### Zeanuri

##### Abenduak 19, barikua

18:00etan, Jabi Perezen pintura erakusketearen inaugurazioa. Manterolatarren erakustaretoan.

19:00etan, Martin Orberi omenaldia San Isidro eleizan.

##### Abenduak 21, domekea

17:00etan, zinea nagusientzat *El templario* Kultur Etxean.

##### Abenduak 22, astelehena

17:00etan, zinea danontzat *Tintin y el secreto del Toison de oro*, Kultur Etxean.

##### Abenduak 23, martitzena

17:00etan, zinea danontzat *War horse* Kultur Etxean.

##### Abenduak 24, eguaztena

17:00etan, Olentzerori harrerea Piedadean.

##### Abenduak 26, barikua

18:00etan, Ander Manterolari buruzko liburuaren aurkezpena. Igoe Etxebarria Kultur Etxean.

##### Abenduak 27, zapatua

17:30ean, IV. Auzoen arteko Giza Proba desafioa frontoian.

##### Abenduak 28, domekea

17:00etan, zinea nagusientzat *The Road* Kultur Etxean.

##### Abenduak 29, astelehena

19:00etan, Eñaut Intxaurragaren berbaldia "Zelan osotuten da bertsoa? Zer da zortziko txikia? Zer poto? Zer puntua? Bertsoen inguruko argibi-

deak ordu bateko saioan".

##### Abenduak 30, martitzena

17:00etan, pala partiduak frontoian.

##### Urtailak 2, barikua

19:30ean, Juan Mari Beltranen "Euskal Herriko musika eta soinu tresnak" kontzertua Kultur Etxean.

##### Urtailak 3, zapatua

19:00etan, Bittor Kapanagaren ikuskizuna *Erro eta gara* Juan Martin Elexpuru, Anton Mari Aldekoa eta Gontzal Mendibilegaz.

#### Zeberio

##### Abenduak 24, eguaztena

17:30ean, Txubelasu Guraso Elkarrekin antolatuta, Olentzero Ermitabarrin. Ondoren kalejireta eta txokolatea.

##### Abenduak 26, barikua

12:30ean, San Esteban jaietan Idi probak eta barauskarria Etxazon.

##### Abenduak 27, zapatua

11:00etan Gabonetako futbol partidua, gazteak gaztetxoekin kontra. Arrankudiagako futbol zelaian. 18:00etan, bola jaurtiketea Ermitabarrin. 20:30ean taloak Ermitabarrin.

##### Abenduak 28, domekea

Euskal Selektzioa-Catalunya partidua ikusteko autobusa.

19:00etan, zinea *El circulo* pelikulea udalxetan.

##### Abenduak 29, astelehena

Txubelasu Guraso Elkarrekin antolatuta, Gabonetako Umeen Parkera txangoa

##### Abenduak 30, martitzena

19:30ean, EAJ-PNVk antolatuta berbaldia "Kirola eta medikuntza profesionala". Batzokian.

##### Abenduak 31, eguaztena

09:30ean, Austari Mendi Taldeak antolatuta, Tontorrandira igoera eta hamaiketako bertan. Zubialdeko plazan.



## LEMOA

## Karabie Gaztetzeko programea

## Erredakzioa

**Abenduak 19, barikua**

Antezzlana eskolan.

**Abenduak 23, martitzena**

19:30ean, Euskal Herria-Palestina. Emakumeon arteko sareak sortzen.

**Abenduak 24, eguaztena**

18:30ean, Olentzero Karabien.

**Abenduak 26, barikua**

22:00etan Karabie Telebista.

**Abenduak 27, zapatua**

22:00etan, kontzertuak The Bardulians, Soul-jazz Quartet eta The Mockers.

**Abenduak 28, domekea**20:00etan, pelikulea *La Haine*.**Abenduak 29, astelehena**

18:30ean, berbaldia "Inperialismoa Ukrainian eta herri erresistentzia Donbassen" eta argazki erakuske-

tea.

**Abenduak 30, martitzena**

19:30ean, "Txatxamurke egune".

**Urtaileak 2, barikua**20:00etan, antzezlan *Marxattack*.**Urtaileak 3, zapatua**

11:00etatik aurrera, truke azokea.

20:00etan, Pintxo Lehiaketeta.



## IGORRE

## Ehun mila eurotik gora enplegua sustatzeko

## Erredakzioa

Herriaren egoerearen azterketea egin ostean, enplegua sustatzeko asmoagaz, atzen urteetako aurrekontuetan diru partidak handitzea adostu eben Udala osatzen daben hiru taldeak. Herriko diruez gainera hainbat dirulaguntza programetan hartu dau parte Igorreko Udalak hainbat ekimen martxan ipinteko. 2015ean, herriko enpresa, denda eta komertzioetan kontratazioak diruz lagunduko dira urte hasieran argitaratuko dan dirulaguntza deialdi baten bidez.

Aurten, Beharbide proiektuak iraupen luzeko langabetuak lanaldi mugatu bat emoteaz gainera, gerora begira aukerak zabalduko deutesiezan formakuntzea be sustatu dau. Gainera, banakako orientazioa eta lan bilaketa, konpententzia profesionala, herriko enpresentzako barrikuntza eta lehiakortasun tailerrak eta Lanbideren ikastaroen finantziarioa bideratu ditu Igorreko Udalak. Honeetan, guztira 50 personak emon dabe izena udal iturrien arabera.

Beinat Anzola alkatearen arabera, herriko enpresak Beharbidera jotzen dabe lan eskeintzen barri emoteko eta Igorreko Udala bitartekaria da. Parte hartzaileak, oso ondo baloratu dabez Beharbideko ekintzak eta enplegua aurkitzeko sano garrantziak izan dirala diosue.

**Lanbideren formakuntza zentru izentapena**

Igorreko Udalak Lanbideren for-

makuntza zentru izentapena lortu dau eta era honetan ikastaroak Igorren bertan jasoteko aukerea dago. Aurten langabetuentzako ikastaro bi antolatu dira, giza baliabideen gestioari buruzkoa eta teknika administratibo-komertzialak azalduko dituan.

Autoenplegua sustatzera bideratuko eskualdeko programan be parte hartu dau Udalak. Bertan aurkeztu diranen aukeraketea egin dabe Beharbide programako teknikariak eta herrian aurkeztu ziran hamasei personen artean hamar programan sartzea lortu da.

Igorreko Udalak laneratzeko enpresakaz izandako batzarri esker epe luzeko langabetu batzuen kontratazioa bideratzea lortu da eta lau herritar beharrean hasi dira.

**Kontratazioak diruz lagunduko daz Udalak**

2015era begira, herriko enpresa, denda eta komertzioetan kontratazioak diruz laguntzea da udalaren asmoa. Udala ordenantza bat prestatzen dabil eta urte hasieran argitaratuko dan dirulaguntza deialdi baten bidez arautuko da.



## LEMOA

## EH Bilduk udal funtzionario bik urigintza proiektuetan parte hartu izana salatu dau eta erantzukizun politikoa egotzi deutso EAJ-PNVri

## Erredakzioa

Pozuetako industrialdean egin zan urigintza operazioaren gorabeherak azaleratu ebazan El Mundo egunkariak abenduaren 4an. Honen arabera, Pozuetako inguru industrialdean birpartzelazioa egin zan 2003an eta Lemoako orduko udal funtzionario bik, 17.000 euro baino gehiago fakturatu ebazan euren mesedetan, hilabete batzuk lehenago sortu eben enpresa baten bidez.

Hori dala eta, Saioa Elejabarrieta Lemoako alkatea (Bildu) eta Aitor Erauzkin alkateordea agertu ziran prensa aurrean abenduaren 5ean, esateko Pozuetako industrialdeako birpartzelazioan "proiektuaren onuradunak udal funtzionarioak izan ziral" eta "udal funtzionario bien portaerea legearen kontrakoa izan daitekela, administrazio publikoko langileen bateraezintasun legedia urratu dabaren zantzu oso argiak dagoz eta". Hori dala eta, "Pozuetako afera honeri jagokan informazio guztia fiskaltzaren esku itxiko dau EH Bilduk".

**Urigintza zerbitzuetako enpresak**

Lemoako alkateak azaldu ebazan arabera, gertakariak kokatzeko, 2002. urtearen hasikerara joan behar da. Orduan, JMM udal idazkariak eta JAJ udal teknikariak urigintza

zerbitzuetarako enpresa sortu eben: Elcano Servicios Urbanísticos S.L. Hilabete batzuk beranduago, 2002ko zemendian Pozueta Promozioak enpresa sortu zan Pozueta industriguneko birpartzelazioa gartuteko helburuagaz. "Alkate horren administratzaile bakarra Urbalex enpresa da eta Elcano enpresearen helbide berean dauka egoitza. Hiru enpresak osotuten daben zirkuluak frogatzen dau Pozuetako birpartzelazio proiektuaren onuradunak udal funtzionarioak izan ziral. Birpartzelazio prozesuaren fakturak oso garbi adierazten dabe hori. Izan be, Pozueta enpresek Elcano eta Urbalex-eri egin eutseezan ordaintzetak birpartzelazio proiektuarengaitik" azaldu eban Saioa Elejabarrieta alkateak.

**Salaketak ukatu egin ditu Idazkariak**

Salaketa guztiak ukatu eta idatzi bat aurkeztu deutso Juan Mari Magro Lemoako idazkariak alkateari ezohiko urgentziatzeko Udal Batza deitzeko eskatuz bere burua defendidu ahal izateko. Idazkariaren arabera, bateraezin legedia ez da urratu, 1993an Udal Batzak abogadu lanetan jarduteko bateragarritasuna onartu eutsalako, eta hau indarrean egon zalako 2012ra arte.

Alkateari zuzendutako idatzian "udal funtzionarioak proiektuaren onuradunak izan ziral" be ukatzen

dau Magrok. Idazkariaren arabera, 17.000 euroak Elcano Servicios Urbanísticos-ek kobratu ebazan proiektuarengaitik, presupuestata egozan moduan eta Pozueta Promozioak pagauta. Beste udal teknikaria be ez zala "onuraduna" izan dino bere idazkian Elcano Servicios Urbanísticos-ek ez deusala inoiz ordaindu ez dietarik, ez irabazi-partizipaziorik, ez beste ezer JAJ jaunari eta.

**Urigintza proiektuak ikertzeko batzordea**

Kasu hau fiskaltzearen esku itxeaz gainera, Bilduk gogora ekarri eban Lemoan atzen urteetan izan diran urigintza proiektuak ikertzeko batzorde berezia sortzea proposatu ebala eta proposamenari ezezkoa emon eutsiela bai EAJ-PNVk bai PSEk. Gertakari honeen aurrean alderdi biak jarkez aldatzeko motiboak daukiezala eretxita, Bilduk barriro proposatuko dau urigintzako batzorde bereziaren sorrera udalbatzan.

Gogora ekarri eban baita be, portaera horreek guztiak EAJ-PNVren agintaldian gertatu ziral, "azpimarratu gura dogu erantzukizun legaler gainera, Lemoan badirala argitu beharreko erantzukizun politikoa be eta herritarri zor deutsegu biak azaleratzea. EH Bildutik hala egiten jarraituko dogu praktika salagarriakaz topo egiten jarraituten dogun bakoitzean".

**Aitor Erauzkin eta Saioa Elejabarrieta alkatea.**

## IGORRE

## Euskera Plan barria aurkeztu eben Euskerearen Egunean

## Erredakzioa

Igorren 2015 eta 2017 urteen artean indarrean egongo dan Euskera planaren aurkezpen ekitaldia, Euskerearen Egunean izan zan. Horretarako, planaren lan ildo nagusiak, esparruak eta egiteko erabilitako metodologia erakusten eban bideo bat proiektu zan. Nerea Zuluagak kantau eban gero Unai Santakolomaren gitarreak lagunduta, eta ondoren, kopautxo dastatu eben bertaratutakoak.

Euskera plan barriak hiru ildo ditu; konzientziarioa, prestigiatzea eta lidergoa lantzea eta horretarako hainbat esparru eta neurri zehaztu

dira. Familia transmisioa, alfabetatze eta euskalduntzea, hizkuntza naturala, aisia eta kirola, liburgintzea, administrazioan, arlo sozioekonomikoan eta kulturgintzan sensibilizazioa eta motibazioa eta positibizatzea dira planak kontuan hartzean dituan esparruak.

Euskera plan barria diseinetako parte-hartze prozesuaren atzen fasea izan da abenduaren 3ko ekitaldia, "herritarrek batera diseinutako plana sozializetako eta parte hartu daben guztiakaz ospatuteko eguna. Prozesu parte-hartzailearen bidez, herritarrek euskera plana ezagutzea, euske-

rearen egoeraz hausnartzea eta inpliketea lortu gura izan da eta ekitaldiagaz pausu bat gehiago emon dogu norabide horretan. Herritarren agotan: giro ona, sinplea eta polita" dino Amaia Arauzo Igorreko Euskera Teknikariak.

Plana osotuteko 100 herritar ibili dira beharrean parte hartze saioetan, eta Inbiu eguneko igorretarron azokan 150 herritarren ekarpenak jaso ziran.

**Udalagaz be euskeraz**

Udal barruan, euskera administratziario hizkuntza izan daiten, eta herritarrek Udalagaz daukien hartu-emonak euskeraz izatea bultzatzeko ekimen batzuk dagoz plan barrian. Hori identifiketako logo bat egin dabe, "Hirea, nirea, geurea, euskerea" dinoana eta "Zatoz udalera euskeraz" leloa be sortu dabe herritarren eta Udalaren arteko hartu-emonak euskeraz izatea bultzatzeko.



## ARRATIA

# Euskarazko Produktuen Katalogoaren edizino barria eskuragai

### Erredakzioa

Euskarazko Produktuen Katalogoak, papelean zein sarean, ume eta gazteentzako ehunka produkturen barri emoten dau. Euskal Herri osoan 13.000 ale bananduko dira. Papelezko edizinoari jagokonean, Zeberioko eskolan 100 ale inguru bananduko dira ikasleen artean; Igorren, eskolan eta institutuan bananduko jakiez katalogoak ikasleai, eta Kultur Etxean be egongo dira ale batzuk eskuragarri. Igorreko Orrie papedendan be erosi leitekez eta [www.katalogoa.org](http://www.katalogoa.org) webgunean dagoz danon eskura.

Urteko sasoi honetan seme-alabai edo ingurukoai euskarazko liburuak, musika edota jokoak erosi eta oparitzeko aukera parebakoa izaten dala kontuan hartuz, Euskarazko Produktuen

Katalogoaren edizino barria osotu dabe Euskal Herriko 100 bat udal eta mankomunidadetako Euskara Zerbitzuak, tartean Zeberioko Euskara Zerbitzuak.

Gurasoentzako eta 16 urte bitarteko ume eta gazteentzako ehunka erreferentzia biltzean ditu edizino barri honek. Merkaduan dagozan produktuen artean aukeraketea egin da, barritasuna, egokitasuna eta kalidadea kontuan hartuta; eta zortzi ataletan bananduta jaso dira: musika, liburuak, aldizkariak, filmak, jostailu eta jokoak, DVD eta informatika produktuak, komikiak eta gurasoentzako produktuak. Gainera, produktu bakoaren gitxi gorabeherako prezioa emoten da, eta atal batzuetan edadearen arabera banaketea egin da.

### Denda birtuala

Webgunean, papelean jasotako produktuez gainera, merkaduan aurkitu leitekezan beste asko agertzen dira. Aukera dago, gainera, argitaletxearen denda birtualera ailegetako produktuaren gainean klik eginaz eta, gura izan ezker, begiz jotako produktua etxetik erosteko. Euskarazko Produktuen Katalogoaren webgunea urte osoan konsultatu leiteke, eta irakurleak, euren iruzkinak eta komentarioak egin leikiez bertan, irakurri, ikusi, entzun edota olgetako aukeratu daben produktua- ren inguruan.



## BEDIA

# Ludoteka eta Gaztetxoko barria

### Erredakzioa

Errekaondo kaleko 9 zenbakian dagoan 150 metro koadroko lokalean dagoz Bediako ludoteka eta Gaztetxoko barriak. Inaugurazio ekitaldia hilaren 1ean izan zan.

Ludotekea 3 eta 11 urte bitarteko umeentzako da eta Gaztetxokoa, barriz, 12 eta 17 urte bitartekoentzat. Zerbitzua erabili ahal izateko alde zurretik emon behar da izena, inaugurazio egunean 60 neska-mutil baino gehiago egin eben moduan.

Etorrizunean, espazio horren ondoan, Udal liburategia, txiki-txikizako espazioa, ikasteko areto bat eta KZ Gunea eta Gaztegunea

ipini gura ditu Udalak.

### Ordutegiak

Ludotekea asteleheneetik barikura egoten da zabalik 16:30etik 19:30era. Gaztetxokoa, barriz, bariku, zapatu eta domeketan 17:00etatik 21:00etara.



## IGORRE

# Webgunea euskeratu dau Batz-ek

### Erredakzioa

Euskerearen Nazinoarteko Egunean Batzek bere webgunea barrizatu eta euskeratu eban. Lehen ingelesez baino ez egoan webgunea eta orain euskeraz, gaztelaniaz eta ingelesez dago. Euskerea eta euskal kulturearen komunitatearen interneteko .eus domeinuan be badago harrezkerotzik webgune hau.

Barriztatzerako orduan, hizkuntzen kudeaketea hartu da kontuan eta bezeroai begirako edukiak izan ezik, honek ingelesez baino ez dagoz, gainerakoetan hiru hizkuntza erabilten dira. Domeinuari jagokonean, .eus domeinuak, euskerearen normalizazioan lagunduko dauala eta "euskerearen herriari nazinoarteko aitortzea eskeintzen deusala" eretxita, Batzek .eus domeinuan ipini dau webgune barriztatua.



## ARRATIA

# Arratiako gida 2015-2016 etxe guztietara bananduko da

### Erredakzioa

Abenduaren 3an, Josune Gorospek, Arratiako Udalen Mankomunitateko presidentea Arratiako Gida 2015-2016 aurkeztu eban. Gida honetan, eskualdeko informazio turistiko eta historikoa eskeintzen da, baita, Mankomunitateak eskeintzen dituan zerbitzuen zerrenda eta garraraio, osasun-zentro, ikastetxe, kultur alkarte, ostalaritza establezimendu eta komertzio eta enpresen sare osoa. Gida hau, BEGITUguz batera bananduko da Arratiako etxe guztietan.



## ARRATIA

# Elikadura subirautzaren bidean laugarren topaketea



Igitiek antolatutako topaketetako kartela.

### Erredakzioa

Igitiek, Arratiako nekazari agroekologikoen alkarteak, Arratiako Elikadura Subirautzaren IV. Topaketak antolatu ditu hilaren 19 eta 20rako. Igorren izango dira topaketok eta bertan, elikadura subirautza zer dan eta Arratian zer egiten dan jakiteko eta hausnarketea egiteko aukerea egongo da. Horrez gainera, ondo pasetako eta bertoko jatekoak dastatzeko modua be izango da Igitieko hileroko azokan erosita, edota topaketetako bazkarian parte hartuta.

*Bide Berriak* dokumentalaren emonaldia izango da lehenengo ekitaldia barikuan, Igorreko Kiñu Gaztetxean, arrastiko zazpiretan eta ostean eztabaidea. Hurrengo egunean, Santomas bezperan, Igorreko udaletxe aurrean, hile-

roko Igitien azokea egongo da. Han, garagardo agroekologikoa, talo beganoak, kosmetikoak edo keramika erosi ahal izango dira, beste produktu askoren artean. "Guztira 15 postu baino gehiago izango dira eta pentsauta daukagu bigarren eskuko erropa eta jostailuen merkadua ipintea, Guraso Elkarteen eskutik eta Gurutze Gorriaren laguntzeagaz" azaldu deutso BEGITURI Sonia Ingunza Igitie alkarteakoa.

### Arrastian animazioa

Horrez gainera, 13:00etan, El Tenderete taldeak umeentzako txotxongilo ikuskizuna eskeiniko dau, gero, soka saltoa eta azelga jaurtiketea eta 15:00etan, bazkaria, babajana. Amaitzeko, 19:00etan, poteoa Gaztetxetik abiatuta Fabe de Fuka elektrotxarangeagaz.





## ARRATIA MARKEA

# "Arratia marka" lantzen

Urtearen amaiera heldu da eta "Arratia marka"ren gaineko hausnarketea gura dot egin, Arratiako kultura eta ondarearen arloak jorratuz. 2000. urtea abiapuntu lez hartuta -aurrekoak egin eben lana ahaztu barik-, hainbat izan dira atzen hamalau urteetan egin diran gauzak, eta hainbat arratiar eta arratiarrak ez diranak izan dira protagonista edo egile.



Arratia Inguruko Hiztegia.

## Angel Larrea

Zer da "Arratia marka"? Arratia sentidutea, hau da, Arratiako historia, tradizioak (ohiturak, folklorea, musika...), euskera (bertako azpieuskalkia, bertsolaritza, ipuinak...) edo inguru naturala (ondare etnografikoa, arkitektonikoa, arkeologikoa, biologikoa, landa-eremuko paisajea eta basogintza, mendigozaleak...), besteak beste, zaindutea eta maitatutea. Beraz, ondare materiala eta inmateriala.

Zeintzuk dira "Arratia marka"ren sinboloak? Sinbolo tradizionalak, zekorra, albokea eta tranbia izan dira, beste batzuen artean. Egun baina mundu tradizionala joan jaku ia-ia. Globalizazioaren mundu bari honetan, identitate kulturalak

bere lekua hartu beharko dau gizartearen imaginarioan, nortasuna indartuteko, sinbolo barriak sortuz, edota sinbolo barrien artean tradizionalak eta barriak buztartuz. Hara hemen bi: bata, ondare inmateriala eta tradizionokoa, euskalgintza da; eta bestea, ondare materiala, Dimako Baltzolako koben inguru.

Era kolektiboan edo indibidualean bagabiz Arratian lanean. Egin daigun errepasotxo. Arratiako kultur-alkarteak hasiko naz. Herrietan eta Arratia mailan musika, folklorea, euskera edo ingurune naturala babestearen aldeko alkarteak sortu dira. Bi aitatuko dodaz, dagozanen artean: bata, herri mailakoa, AKKB (Areatzako Kultura eta Kirol Batzordea); bestea, Arratia mailakoa, Zertu Kultura Elkarte.

Taldekideten lana edo konpromisoa eta herritarren parte-hartzea alkarrean ekintzetan izaten dira haren aktiborik handiena.

Kultura eta ondarearen zabal-kundean ezinbestekoa da komunikabideen presentzia. BEGITU aldizkaria eta Gorbeialde Irratia dira.

Kultura eta ondarearen zabal-kundean ekimen instituzionala beaitatu egin behar da: Mankomunitadeara (AUM), "Arratia. Bidean gagoz" bere aldizkariaren bidez, eta Udal guztiak, euren presentzia eta laguntzagaitik. Hemen zera aitatu gura dot, Areatza, Igorre eta Zeanuriko Udalen parte-hartzea urtero udagoienera antolatzen diran Ondare Jardunaldietan, eta Dimako Udalaren ahalegina Baltzolako ingurunearen babesean.

Era indibidualean jardunean dabilanak, persona edo talde txikiak izan dira. Danak gogoratutea eta aitatutea ez da behar erreza. Halanda be, ahaleginduko naz hurrengo izen-abizenak esaten, holantxe banandurik:

### 1) Arratiako herriakaz edo arratiarrakaz lotutako lanak edo ikerlanak, publikautak:

- Jasone Aldekoak, bere doktoretza-tesia "Euskararen normalizazioa hezkuntzan (2000-2014)", online argitaratua. Arratia eta inguruko euskerearen egoera aztertu dau.

- Abel Ariznabarretak, Enrike Ibabek, Kepa Velascok eta Zefe Ziarrustak (Laratzu Taldea), "Lino-beharrak eta Dimako emakumeak" ikerlan etnografikoa egin dabe.

- Miren Atutxak Ipolito Larraoetxea "Legoaldi" idazlearen ipuinen gaineko lan filologikoa egin dau.

- Gotzon Aurrekoetxea irakasleak Arratiako euskera ikertu dau.

- Gotzon Aurrekoetxeak eta Jaione Ibarak "Dimako leku-izenak" edo toponimia ikertu dabe.

- Koldo Azkuek "Bedia XX. mendean" liburua egin dau.

- Josu Bilbao Fullaondok "Felipe Manterola" argazkilararen liburua egin dau.

- Dimako Udalak "Baltzola, Ama Lurraren altzoa" izentatutako lana emon dau argitara.

- Iñaki Elexpe eta Galder Olibares irakasleak Álvaro Alcalá-Galiano margolariaren gaineko "Arratiara begira" ikerlana egin dabe.

- Iñaki Espartak, Dimako irakasleak, "Garapen iraunkorren eragina baso sektorean. Funtzio ekologikoak Bizkaiko baso politikan" doktoretza-tesia online argitaratu dau, beste lan batzuen artean.

- Iñaki Esparza eta Angel Larrea irakasleak "Arratiako euskal idazle aitzindariak" ikerlana idatzi dabe. Honeek irakasle biek, Gotzon Aurrekoetxeagaz batera "Arratiako euskal idazleen Antologia" koordinatu dabe.

- Juan Manuel Etxebarria irakasleak Gorbeialdeko euskera eta etno-ipuina landu dauz hainbat argitalpenetan sakabanatuta; azkenetarikoa "Gorbeialdea: Mito, ipuin eta esaundak" izenburuko argitalpena da.

- Igone Etxebarriak eta Ainhoa Etxazarrek Bediako etnografia ikertu dabe "Bedia. Bizimodua eta ohiturak" liburuan.

- Manu Gojenola "Albokaren alde batzuk" liburuaren egilea da.

- Enrike Ibabe etnografoak "Geure Gorbeia" liburu mardula idatzi dau.

- Aitor Iglesias irakasleak Igorreko euskera ikertu dau.

- Haritza Iturbek, Jose Luis Atutxak eta Garikoitz Bernaolak "Arratiako Basogintza" ikerlana egin dabe.

- Angel Larrea irakasleak "Errementariak, sorginak eta jainkosak. Mitoak eta magia Arratian" eta "Arratia inguruko ipuinak" liburuak egin dauz.

- Angel Larrea eta Juantxu Rekalde irakasleak "Arratia inguruko Hiztegia" eta eskuko hiztegi bat ("Berbategitxo") idatzi dabez.

- Ruper Lekuek "Arratia aldeko kanta eta bertso zaharrak" izeneko bilduma egin dau, Arratiako Musika Eskolearen 25. urteurrenagaz batera.

- Ander Manterolak "Atlas Etno-

gráfico de Vasconia" bilduma handia zuzendu dau.

- Gorka Menendez ikerlariak "Gorbeialdeko sendabelar tradizionalak" deitutako lan etno-botanikoa egin dau.

- Juanjo Olaizolak "El tranvía de Arratia (1902-1964)" lana idatzi dau.

- Karmele Perez Urraza irakasleak "Zientzia, teknologia eta lanbideen agerpena Euskal Herriko testuliburuetan" liburua argitaratu dau, beste lan batzuen artean.

- Kepa Perez Urraza irakasleak Zeberio etnografia ikertu dau. Gainera, bere doktoretza-tesia "Ingurune hurbileko curriculum soziologikoa. Zeberio Harana" be argitara emon dau.

- Arantza Saratxaga historialariak "Areatza/Villaro. Azterketa historiko-artistikoa" ikerlana egin dau.

- Blanka Urgell irakasleak Añibarroren "Gueroko Gero", Areatzako idazle euskaldunaren gaineko ikerlan filologikoa egin dau.

- Jon Urutxurtu irakasleak "Arratia posta txartelean" liburu-bilduma egin dau.

- Gabriel Vazquez ikerlari botanikoa "La magia de las hierbas", "Cosmética natural" eta "Árboles sanadores" idatzi dauz, beste liburu batzuen artean.

- Argitaratzeko dago (inprentan) Txema Uriarte eta Oiane Valero ikerlariak Igorreko Timoteo Atutxa Petralanda, gerra-denporan fusilatukoaren gaineko lana.

### 2) Arratiarren sormenezko lanak (idazlan, artelan, dokumental edo musika-lanak), publikautak:

- Gaizka Amondarain gazteak "Ortozik" poeziako liburua idatzi dau.

- Aritz Arrizabalaga irakasleak "Paradisu zinemak" nobelea idatzi dau.

- Arratiako Eleizeak "Arratiako errogatibak Urkiolara" liburutxo egin dau.

- Benjamin Aurrekoetxeak "Bukar est hi", "1812. Isilpeko mezua", "Arrats gorri ostean" nobelak idatzi dauz, eta "Arratiako bihotzetik"

946 319 008  
658 195 091

Udagoien eta neguko koleziozko barriak ikusi gura badozuz, SARTU FACEBOOKera  
www.facebook.com/galanta.lenceria

Agirre Lehendakaria 23  
48140 Igorre  
galanta@hotmail.es

**GALANTA**  
zure barruko arropa


**M. JOSE**  
barritik janzen zaitu

Graduazioak  
- Ikusmen terapia  
- Ikusmen gubitua  
- Begiko tentsioa  
- Lentillen adaptazioa  
- Kiroletarako betaurrekoak

**Olaetxe**  
OPTICA ZENTRUA

Seblino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)  
94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es





Eskean Kristö taldeko kideak.

lana, beste kolaboratzaile batzukaz batera.

- Igor Estankona idazleak "Tundra", "Ehiza eta nekea", "Iratzeen esporak"... liburuak idatzi dauz.

- Juan Manuel Etxebarria irakasleak "Biziak bizilan" nobelea, eta "Euskitz" eta "Astoa", ipuin-liburuak idatzi dauz.

- Jürgen Lange irakasleak eta Jurek Ziemkiewicz "Peru Tximaluze" ipuin liburua itzuli eta ateratu dabe.

- Angel Larreak "Magiaz blai" poesiako liburua idatzi dau.

- Gontzal Mendibil abeslariak "Gorbeia haizea" liburua idatzi dau.

- Fredi eta Xabier Paya anaiak "Aupa Maurizia!" lana idatzi dabe.

- Alvaro Rabelli irakasleak "Saguzarren profhezia" ipuin-liburua idatzi dau.

- Rafa Ugalde irakasleak "Gorria" eta beste ipuin batzuk idatzi dauz.

- Iker Yurrebasok "Ametz" eta "Haizea aurpegiaren" narrainozko liburuak idatzi dauz.

- Zefe Ziarrusta irakasleak "Barrutik sentsazioen koloreak taupadaka" izeneko poesiako liburua egin dau.

- AK-37, Arratia Institutuan sortutako musika-talde gazteak, "Arratiako kanta galduak", "Hurreko hurrean" eta "Kanta galduen bila" hiru disko argitaratu egin dauz.

- Arratiako aitak eta amak abestutako bertako ume-kantak "Umeen zentzune, etxean entzune" izeneko diskoa ateratu dabe.

- Eskean Kristö musika-taldeak izen bereko "Eskean Kristö" eta "Azote kaldüz!" diskoak ateratu ditu.

- Borja Estankona abeslariak Arean taldeagaz "Arean" eta "Higakorra" diskoak eta bakarrik beste bi disko "Estankona" eta "Fruitua" argitaratu egin dauz.

- Esti eta Olatz bikoteak lau kantak osatutako maketea argitaratu egin dau.

- Luis Iruarizaga Abesbatzak "XXV. urteurrena (1981-2006)"

diskoa argitaratu egin dau.

- Ibon Koteron eta Xabier Valle albokariak "Alboka 2.1 Bizialdi berria Upgrade" izeneko disko argitaratu dabe. Kanta batzuk Arratiako albokariaren abestietan oinarrituta.

- Juanma Labandibar musikariak "Akelarre" taldean egindako lana.

- Larregi musika-taldeak "Larregi" eta "Bidea dugu helmuga" diskoak ateratu dauz.

- The Alan Lomax Collection. "The Spanish Recordings: Basque Country: Biscay and Guipuzcoa", Zeanuriko kanta tradizionalak (Arantza eta Andoni Goikoetxea, eta Sotero Erauzkin).

- Gontzal Mendibil kantariak hainbat disko argitaratu egin dauz, besteak beste "Hogeita hamar urte kantuan 1975-2005" izeneko kanten bilduma handia eta "Neure txiki polita", atzen hau Gorbeialdeko kantakaz.

- MG Banda musika-taldekoak "Arratia bailarako musikea!", "Materia gris" eta "MG II" disko eta

maketak ateratu dabez.

- Nik Khaos musika-taldeak "Argiak lekuri ez duenean..." album digitala ateratu dau.

- Antonio Aldama margolariak, Felipe Manterolaren argazkietan oinarrituta, Zeanuriko inguruak margotu dauz.

- Koldo Etxebarriak, Lemoako margolariak, "Arte eta Teknologia" lana egin dau.

- Karmelo Undurragak, Igorreko margolariak egindako lana.

- Jose Angel Mintegik, Igorreko argazkilariak egindako lana.

- Iker Yurrebasok, Ibai Pujanak eta Eider Aldapek "Baso Ahaztuak" izeneko dokumentala egin dabe. Ibai Pujanak, gainera, "Egunon Printzesa!" laburmetrajea egin dau.

- Denpora gitxi barru argitaratu da Ilintia Elkartearen ardurapean Aritz Arrizabalagak, Ainara Pujanak eta Ibai Pujanak egin daben "Igorreko Memoriaren Bankua" proiektuaren dokumentala.

### 3) Badagoz Arratian beste hainbat persona eta talde plaza urtetan dabenak:

A) Kulturgileak: Zeanuriko Antzerki Taldea, Iñaki Lasa moduko ipuin kontalariak, Arratiako Bertsolari Taldeko partaideak, Arratiako Antzerki Gaztea, Arantzarte Dantza Taldea, Arratiako Koroa, Areatzako Musika Taldea, Arratiako Pastoral, Gaztetxeak (esaterako, Lemoako "Karabie"), Ipizki, Bedia edo Igorreko liburu-irakurle taldeak...

B) Kolaboratzaileak komunikabideetan, artikulua edo erreportajeak egiten: Xabier Aierdi, Nagore Amondarain, Jon Urutxurtu, Julen Gabiria... Beste batzuk, atzerrian be (Ingalaterran edo Argentinan, adibidez), gure kulturearen iragarleak bihurtu dira: Maite Yurrebaso, Matgosia Ziemkiewicz, Olatz Elejabarrieta, Helena Lazaro...

Honaino heldu gara. Etorkizunari begira, finkatu gura badogu "Arratia marka", orain arte egin dan lanari ekin beharko deutsagu.

ZORIONAK  
ETA URTE  
BARRI ON!!!!

ARRATIako MERKATARIEN ELKARTEA  
www.arratia-merkatariaK.com

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO



## AIZKOREA

Atutxa Txapeldunen  
Ligako txapeldun

## Erredakzioa

Txapeldunen txapelduna. Aizkolari dimoztarrak Urrezko Aizkorako Txapeldunen Ligako atzen jardunaldia irabazi eban zemendiaren 30ean Elgoibarren eta garaipen horregaz txapela be bai.

Atutxa II.ak ez eutsan alde handirik atera Ugaitz Mugertzari, eta atzenengo probea egin arte ez zan jakin nok irabaziko eban. Izan be, lehenengo hiru beharrak egiteko denpora gitxiago behar izan eban Atutxak baina aldea txikia zan eta laugarrenean Mugertza aurrean ipini zan. Bosgarrenean, buelta emon eutsan Dimakoak, baina segundu bakar baten al-

deagaz. Atzenengo beharra egiteko denpora gitxiago behar izan eban Atutxak eta holan txapela lortu eban. Behar guztiak egiteko 21 minutu eta 50 segundo behar izan ebazan Aitzol Atutxak eta 22 minutu eta 26 segundo Ugaitz Mugertzak.

Txapeldunen Ligako Kopan  
bigarren

Hurrengo erronka Txapeldunen Ligako Kopako finala izan zan hilaren 7an, Orion (Gipuzkoa). Txapela Jon Rekondorentzat izan zan. Aitzol Atutxak bigarren egin eban eta Ander Erasunek hirugarren.

2014 urtea ikaragarri ona izan

da Dimakoarentzat; izan be, aurtent bost txapel irabazi ditu "Euskal Herriko txapelketarik handiena irabazi dot 26 urteaz, eta hori handia da. Ea, Bizkaikoa be lortzean dodan eta horregaz biribiltzen dodan urtea" dino Atutxak.

## Seigarren txapelaren bila

Atutxa II.aren hurrengo erronka hilaren 22an, Bilbon Areatzako parkineko sarrera parean, Bizkaiko Euskal joko eta kirol Federakundeak antolatutako Bizkaiko Aizkolari Txapelketea izango da. Bertan, sei aizkolari neurtuko dira eta erdiak arratiarrak dira. Han egongo dira, Aitzol Atutxa dimoztarrak eta Xabier Garcia "Utzu" eta Julen Mendieta lemoztarrak.

## Julian Larrea Diman

Aitzol Atutxaren lagunak antolatuta, aizkora saio berezia egin zan abenduaren 14an, Dimako frontoian. Julian Larrea 85 urteko aizkolariak



Aitzol Atutxa.

kana bateko enborra moztu eban. 80 urteaz lortu eban kanako enborra mozte eta bost urte beran-

duago marka hori egitea zan Larrearen helburua eta lortu be egin eban aizkolari beteranoak.

## LASTERKETAK

Urte amaierako lasterketak  
Igorre eta Lemoan

## Erredakzioa

Urtea galapan amaitutea mundu osoan zabaldua dagoan ohitua da eta gurean be badago aukera hori. Holan, urteko atzenengo egunean, Eneko Zamalloa memoriale, Lemoako IV. lasterketea dago eta San Silbestre lasterketea Igorren.

Sano desbardinak dira lasterketa bi honeek. Izan be, Lemoakoa kirol proba bat da eta Igorrekoa, kirola izanda be, urtea umorez amaituteko ekitaldia, lasterketariak moztortuta egiten dabe galapan eta.

Lemoako lasterketak hiru ibilbide

ditu, partaideai egokitzeko. Umeak 500 metro egingo ditue galapan eta nagusiak aukera bi daukiez: 1.300 metro edo lau kilometro; hau da zirkuituari buelta bat emon ala hiru buelta. Urtekean 12:30ean izango da Elizondoren eta ondoren herri poteoa egongo da.

## Igorren moztortuta

Igorreko San Silbestre lasterketea 11:30ean hasiko da baina 11:00etan emon behar da izena. Seigarren edizioa da aurtengoa. Igorretarrak jai giroan eta moztortuta ekiten deustse kirol eta umorezko proba honeri.

## GIZA PROBA

Auzuneen  
arteko desafioa

## Erredakzioa

Abenduaren 27an jokatuko da Zeanuriko IV. Auzo arteko Giza Proba desafioa. Lau auzunek hartuko dabe parte: Asterriak, Otzerinmendik, Plazeak eta Uribeak eta modalidade bakarreko proba izango da desafioa: giza proba, hain zuzen be.

Lau neska eta lau mutilak osotuko dabez taldeak eta hamabost minutuko beharra egingo dabe ia zeinek unte gehiago egin. Frontoian izango da arrastiko seiretan. Jantzarien agurra eta giza proba ostean, trikipoteoa afaria, eta disko festa egongo da.

## FUTBOLA

Atzen  
partiduak  
irabazi ditu  
Arratiak

## Ainhoa Duñabeitia

Gizonezkoen talde biak astegoienean (abenduak 14-15) biribila euki dabe. Lehen taldeak etxean jokatu eban Arangurenen kontra. Aurreko astegoienean izandako porrotak, aurrera egiteko indarra emon eutsen eta holan erakutsi eban atzen partiduan. Neurtetari aurre egin eutsien bi gol eginez, atzen emoitzea Arratia 2 Aranguren 1. Hamabigarren postuan dagoz arratiarrak 14

puntuz; hurrengo astegoienean Acero izango dabe aurrez aurre.

Bigarren taldeak barriz, garaipen bi lortu dauz atzen bi astegoienean. Hilaren 6an, etxean jokatu eban Erorrio Bren kontra. Arratia B 3 Elorrio B 1 izan zan emoitzea. Hilaren 13an, Lemoako Lemoaberriaren aurka jokatu eban, errez irabazi eutsan Arratiak Lemoaberri. Lemoaberri 0 Arratia B 3. Zaldia izango dabe aurkari hurrengo astegoienean.

Andrazkoen taldeak be 3 puntuak eskuratu ebazan Peña Athletic-en kontra abenduaren 14an Igorreko Urbieta zelaian jokatutako partiduan. 3 eta 0 izan zan atzen emoitzea. Hurrengo astegoienean, atzen postuan dagoan Lantaron taldearen kontra jokatuko dabe. Zazpigarren postuan dagoz Arratiako neskek sailkapenean.

**Okindegia**  
+ Ke... PAN  
Etxean bertan egindako pastelak

**IGORRE**  
Lehendakari  
Agirre 11  
94 656 65 52  
Sabino Arana 35  
94 657 3898  
**AREATZA**  
Goiko kalea 8  
94 608 90 47

**ARA OTZ**  
Lanbidearen O Jabetza

**arratiako instalazioak s.l.**  
Berokuntza - Iturgintza - Gasa  
Aireztatzeko sistemak  
Aire zurgatze zentralizatua  
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industrialdea  
Fab. D7  
Tel. Fax. 94 673 62 76  
Tel. 619 736 516  
48140 Igorre Bizkaia

**FISIK**  
FISIOTERAPIA ETA  
ERREHABILITAZIO ZENTROA  
Tel. 94 685 11 16  
LEHENDAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

**Gure Ikastetxeak**  
Arratiako Herri Ikastetxeak 2 urteik 18ra. Euskalduna, kalitatezkoa, herrikoa

**Arratia BHI**  
Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igorre

**Ikastola Arratia HI**  
Tel.: 94 673 90 45 Faxa: 94 673 90 45 Artea

**Zubialde HI**  
Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio

**I. Zubizarreta HI**  
Tel.: 94 673 40 22 Faxa: 94 673 40 22 Igorre

**Areatzako Herri Eskola**  
Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza

**Zeanuri HI**  
Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeauri

**J.B. Eguskiza Meabe HI**  
Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa

**Ugarana HI**  
Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Mour hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoak, Hezkuntza zirkulak

**OPEL**

**ibalgane, s. Coop. Ltda.**

Estazioa, 15  
48330 LEMOA (Bizkaia)  
Tels. 631 33 30 - 631 31 31  
Fax 631 36 15

**RUGBY TABERNA**

•Egin zaitetz bazkide!  
•09:30etik zabalik  
•Asteburretan pintxo bereziak

arratiko.zekoerak@gmail.com  
http://santxisme.blogspot.com/



**ZIKLO-KROSA**

# Aitor Hernandez eta Rocio Gamonal txapeldun Igorreko Ziklo-krosean

**Erredakzioa**

Aitor Hernandez ermuarrak irabazi eban Igorreko Ziklo-kroseko lasterketa Elite gizonetakoan. Euskadi Sari Nagusia eta Espainiako Kopako lasterketa izan zan hau eta Hernandez aurreko Espainiako Kopako lasterketan irabazlea izan danez, proba bi falta diranean, ziurtatuta dauka Espainiako Kopa. Elite andrazkoetan Rocio Gamonal asturiarrak lortu eban txapela. Naia Alzola, Bizkaiko txapeldun dimoztarrari kanbioa

apurtu jakon eta ezin izan eban lehenengoan artean egon.

**Lehenengo arratiarrak**

Kategoria askotan, lehenengo hamarren artean egon zan arratiarrak. Beteranoetan batez be, baina ez bakarrik. Elite gizonetakoetan, lehenengo arratiarra Julen Zuberok izan zan, laugarren egin eban Zuberok. Master 30ean, Mikel Epalzak zortzigarren egin eban; Master 40an Manu Quintanillak zazpigarren; eta Master 50en Jose Antonio Mazairak laugarren.



Elite andrazkoen urtekerea.



Txirrindulariak Igorreko zirkuituan.

**TRONTZEA**

# Aitzol Atutxak irabazi dau Bizkaiko Trontza Txapelketa

**Erredakzioa**

Aitzol Atutxa eta Amando Larreak osotutako bikoak lortu eban Bizkaiko Txapela abenduaren 1ean Bilboko Ametzolan. Lehian beste bikote bi egon ziran, hareetako bat arratiarrez osotuta, Igorreko Loiola anaiak hain zuzen. Igorretarrak bigarren egin eben.

Lehia handia egon zan arratiarren artean, eta segundo batzuen aldea baino ez eutseen atera irabazleak bigarrenai. Izan be, Aitzol Atutxak eta Amando Larreak 7 minutu eta 03 segundo behar izan ebezan beharra amaituteko eta Aitor Loiolak eta Jon Loiolak, 7 minutu eta 31 segundo. Urrin geratu ziran hirugarrenak, Salvador Erleagak eta Bingen Erleagak 12 minutu eta 21 segundo behar izan ebezan eta.

**Sailkapenak**

	Gizonak	Andrak
Elite	1- Aitor Hernandez 2- Javier Ruiz de Larrinaga 3- Kevin Suarez	1- Rocio Gamonal 2- Aida Nuño 3- Olatz Odriozola
Junior	1- Mario Junquer 2- Jokin Alberdi 3- Jon Gil	1- Rocio Garcia 2- Desiree Duarte 3- Irene Trabazo
Kadeteak	1- Jofre Cullel 2- Ivan Feijoo 3- Jon Polledo	1- Luisa Ibarrola 2- Saioa Gil 3- Sara Trigo
Master 30	1- Juan Jose Romero 2- Eduardo Jimenez 3- Jose Luis Blanco	
Master 40	1- Ihigo Burgos 2- Marco Antonio Prieto 3- Josu Isasi	
Master 50	1- Jokin Mujika 2- Jose Lorenzo Esteban 3- Daniel Alonso	
Master 60	1- Alonso Lopez 2- Julio Martinez 3- Jesus Maria Alzola	

**· Zorionak eta urte barri on opa deusuegu**

**· Zabaldu barri**

- Etxerako altzairuak
- Deskantsua (koltxoiak, sofak...)
- Osagarriak
- Kortinak, edredolak... egiten doguz
- Gremioen koordinazioa
- Horman sartutako armairuak

**· Dekorazioa eta barruen diseinua**

(Telepizaren aurrean)

*Ana de Pátina*

Ganekogorta 12, 48.960 Galdakao  
94 400 52 40 · adepatina@outlook.es

# Oparitu BEGITU-lagun!

\* Deitu 649 979 115 telefonora

Egizu zure laguna BEGITUREN harpidedun eta otzara bete kultura oparitutako deusazu.

- 6 liburu: Arratia Inguruko Hiztegia, Ortozik, Ametz, Peru Tximaluze, Haizea aurpegiaren eta Arratia aldeko kanta eta bertso zaharrak
- Arratia, Ubide eta Zeberiko argazki zaharren postal bildumea
- Luis Iruarizaga Abesbatzaren 25. urtemugako CDa

35€, 55€  
edo 75  
**€uroren truke**

HAU DANAU JASOKO DAU BEGITU-LAGUN BARRIAK OPARI DOTORE HAU EGIN EZKERO





## MUSIKEA

Larregi, Lemoako taldeak  
BBK Live-en joko dau

## Erredakzioa

Igaz Eskean Kristök egin eban moduan, aurten Larregik irabazi dau Banden Lehia, urte bitan Arratiako talde bik, beraz. Banden Lehia Azkue Fundazioak antolatutena dau eta euskeraz abestuten daben taldeak hartzean dabe parte bertan irabazlearentzat dagoan saria eskuratu guran. Saria, disko bat ekoiztea eta Bartzelonako EH Sona eta BBK Live nazinoarteko jaialdian jotea da.

Aurten Banden Lehia irabazi dauan Larregi taldeak sei urteko ibilbidea dauka. Urte honeetan aldaketak egon dira taldean, eta momentu honetan Lemoako Iñigo eta Unai Santos anaiak eta Jokin Uriartek, eta Zornotzako Markel Atutxak osotuten dabe. Larregik maketa bat eta disko bat daukaz kalean. Diskoa, *Bidea dugu helmuga* izenekoa 2012an kaleratu eban. 2011n Euskadi Gaztea saria irabazi eban Larregik.

Unai Santosek sari honek dakarren poza eta erantzukizunaren barri emon deutso BEGITUARI.

## Zelan heldu zinien Banden Lehiaren finalera?

Aurre sailkapen bat egiten da, talde multzo bat aukeratzeko. Gero horreetatik jentek bozkatu behar ditu onenak eta gero epaimahaiak aukeratzeko beste talde bi. Jentek bi eta epaimahaiak beste bi. Beraz, lau talde. Gu epaimahairen bitartez sartu ginan.

## Ez da izan Banden Lehiaren parte hartu dozuen lehenengo aldia, ezta?

Ez. Banden Lehiara atzen urte biotan aurkeztu gara. Baina boto gitxi batzuegaitik ez genduan lortzean finalerako sailkatzea. Aurten, barriz, epaimahaiak ebatzi eban, Larregiri finalean egoteko aukerea emotea.

## Zenbat talde egon zinien? Imajinetan dot gainera estilo diferenteetakoak izango ziniela...

Hori da. Ikusi dogunagaitik aurre sailkapen fase horretan, hogeitai baina gehiago egon ginan hor eta danerik egoan: pop, metal, rock edo pop alternatiboa egiten daben taldeak, baita eskeintza barrizaleagoak egiten dabezan taldeak be. Adibidez, gugaz finalean egon zan Aizkorak zorrotzu taldeak bere burua post-rock moduan definituten dau. Finalean egon ziran post-rock talde hori, metal peto-petoa egiten dauan Late Scream taldea, geu eta Crazy Kaos. Honeek be rock nahiko berezia egiten dabe.

## Zuek zelan definituten dozue zuen musikea?

Nik esango neuke rock euskalduna eta melodikoa dala. Melodiari inportantzia handia emoten deusagu, bai abotsetan eta bai gitarran.

## Zeintzuk dira Banden Lehiaren finalean jo dozeuzan kantuak?

Finalean 20 minutu izan genduzan danok eta oso zorrotza izan zan hori. Bost kantu aukeratu genduzan, lau diskokoak eta beste maketa garaikoa: "Nigandik gertu", "Esperoan" "Izotza bezain hotza", "Bide bat" eta beste ez dot gogoratzen.

## Danak estilo berekoak?

Gu saiatu ginan bost kantu horreek indartsuak izan eitezala. Ez genduan gura kantu akustikorik edo baladarik. Atzen baten 20 minutu dira eta ondo aprobetxatu behar dira. Ez genduan gura erritmoa bajatu. Danak izan ziran hiru minutu inguruko kantuak, energia handikoak.

## Aspaldi honetan proiektino bat daukazue hemendik kanpo...

Talde baten etapak egoten dira.



Unai Santos.

Momentu batzuetan goian eta gero ez. Gure kasuan sortu eta handik urte bira Euskadi Gaztea irabazi eta gero, entzule asko euki genduzan, eta bai, bastante goian egon ginan horrerik esker. Ezagunak egin ginan, bideoklipak egin genduzan eta lortu genduan kontzertu dexente emotea.

Gero atzen urte bi honeetan, ez gara ibili hain aktibo, akaso, taldekide aldaketak izan doguzalako. Erdi *stand-by* egoera baten, egon gara.

Orain zorionez sari honerik esker, 2015 oso-oso urte inportantea izango da. Jaialdi oso inportante bi daukaz eta gero disko bat garabetako aukerea.

## BBK Live-n jotea sensazio ikaragarria izango da, ezta?

Sekulako saria da. Lehenengoak eroaten dauz premio guztiak, eta guk, lehenengoak izateagaitik, igaz Eskean Kristök legez, sekulako premioak daukaz. Eta zuk dizozun proiektino hori, aprobetxatu egin behar dogu. Erresponsabilidate handia be bada. Pozik gagoz baina erantzukizun handia daukagu aurretik eta neurria emoten saiatu beharko gara. Irabaztea oso ondo dago baina gero frogatu behar da zozzerrengaitik irabazi dogula.

BBK Live-egotea edozein talderentzat amets bat da. Nazinoarteko jaialdi bat da eta mundu zabaleko taldeak biltzean dira Kobetamendin. Aurten, esate baterako, Muse taldea dator Britania Handitik eta sekulako taldea da. Eta gu be kartel horretan agertuko gara. Nik uste dot, holango agertoki baten egotea, disfrutetako egun bat izango dala. Ez da lehiaketa bat, saria baino. *Back stage*-a dalakoa jente famaduz gaz konpartiduko dogu. Duda barik, aprobetxatu behar dogu

kontzertu on bat emoteko eta disfrutetako.

## Orduan 2015 potente dator.

Banden Lehia irabazi ala ez, gure asmoa disko bat kaleratzea zan bardin-bardin. Toketan jaku, kantu barriak daukaz eta. Orain, Baga Biga etxearen babesa eukiko dogu. Guretzako erresponsabilidate handia da eta disko udabarri aldean grabetea espero dogu eta datorren Liburu Azokarako prest eukitea.

Disko nahiko aurreratuta daukagu, disko erdia edo, baina ondino ordu asko sartu beharko doguz eta lan asko egin.

2015ean, jaialdi potente bi daukaz, diskoan zentru behar gara batez be, eta hortik aparte, aurten baino kontzertu gehiago emotea izango da gure helburua. **Arratian rock banda euskaldun indartsuak daukazalako esan leiteke, ezta?**

Igaz Eskean Kristök irabazi eban eta aurten geuk. Polita da Arratia moduko bailara baten. Orain dala 10 urte ez egoan hemen ia musika talderik, eta zorionez orain dala bost-sei urte talde batzuk sortu ginan eta hor ibili gara jo eta ke. Guk sari batzuk irabazi doguz, Eskean-ek be bai, baina gehiago be badagoz, MG, esate baterako, eta talde gehiago.

Uste dot benetan balorau behar dala Igorreko Udalak taldeen alde egin dauan lana, ze lokalak debalde ixten deuskuz. Eta hori salbuespen bat da Bizkaia mailan, nik uste. Igorreko Udalak kulturearen alde, eta gure kasuan musikearen alde egiten dauana, benetan azpimarratzekoa da eta guk benetan aprezietan dogu hori. Ezpabere, ez balira egongo aukera honek, nik uste dot gure saria edo Eskean-ena ez zirala posible izango.

"2015 sano urte inportantea izango da Larregirentzat"

"BBK Liveen jotea amets bat da edozein talderentzat"

LEHENENGO URTERO KANTAN  
15ko DEKORATUA

AGUIRREK  
basolo Emaldi  
FREN ADMINISTRATZAKA

Abokatuak

620.57.86.04  
aslerabasolo@hotmail.com  
Bilbao-Zeanuri

Beer & Edariak s.l.

HEINEKEN SOLARES

Felipe Mendizola, 3. 48500 LEMOIA, Bizkaia  
Tel: 090 480 830 / 090 200 717

Pinturas Arratia

Javi Morato

Tel. 628 443 992

KIRRU ILEAPANDEGIA  
SOLARIUM

Roberto eta Rosana

Sabino Arana, 38 baxo - 48140 IGORRE (Bizkaia)  
94 631 92 06

umeen moda

sem

0-16

Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE  
Tfnos. 94 631 92 96 • semmoda@hotmail.com



## BERTSOLARITZEA

# Arkaitz Estiballes Bizkaiko Bertsolari Txapelketako Miribillako finalera

### Erredakzioa

Zeanuriko Arkaitz Estiballesek irabazi eban hilaren 7an Amorebieta-Etxanoko frontoian jokaturako atzen finalaurrekoa eta abenduaren 20an Bilboko Bilbao Arenan jokaturako Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalean izango da Iratxe Ibarra, Etxahun Lekue, Jone Uria, Onintza Enbeita, Oihana Bartra, Fredi Paia eta Xabat Galletebeitiagaz batera.

Amorebieta-Etxanoko frontoian 700 lagun inguru alkartu ziran atzen finalaurreko hau ikusteko eta finalista zeintzuk izango ziran jakiteko. Eta saio honetan kantetan ibili ziran hiru bertsolari izango dira finalean. Izan be, Arkaitz Estiballes irabazleaz

gainera, bertsolari bi sailkatu ziran finalerako puntuazinoa dala eta, Jone Uria eta Oihana Bartra, hain zuzen be.

Gai emoile beharretan, Maite Berriozabal ibili zan eta epaimahaia, Ander Txakartegik, Iñaki Aurrekoetxeak, Jon Jaiok, Joseba Santxok, Jurgi Fuentesek eta Mirari Azulak osotu eben, eta idazkari beharretan Itziar Basterretxea ibili zan.

Finala, hilaren 20an, 17:30ean jokaturako da Bilbon, Bilbao Arenan (Miribilla) eta sarrerak erosteko, hurrengo bideak dagoz: [www.bertsosarrerak.eu](http://www.bertsosarrerak.eu) orria, Txappelketa aplikazioa eta finalaren egunean, eguerditik aurrera, Bilbao Arenako txarteldegian.



## ONDAREA

# XV-XVI. gizaldiko leihoa agertu da Zeanuriko Ipiñaburuko parrokian



Ipiñaburuko Santiago parrokian agertutako leihoa.

### Jon Urutxurtu

Zalantzak egon badira be, Bizkaiko Eleiz Museoko zuzendariak, Juan Manuel Gonzalez Cembellinek argitu ditu danak: "jatorrizko eleizearen aztarna dogu bentana hau, 1.500 urtearen ingurukoa, baleiteke Santiago parrokia egin

orduko hemen egoan ermitearena izatea".

Holango adierazpenak egin eban Cembellinek, Ipiñaburuko (Zeanuri) Santiago parrokiako abadexaren zaharbaritze beharretan azaldu zan leihoa aztertu ostean. Barritzatze behar horreek ezusteko ugari emon

dabez, batzuk desatseginak, ikusgarriak besteak. Desatseginen artean, egurrezko egituran agertu dan termitea, abadexea eta parrokia mehatxupean eukazana. Arazo hori konpontzeko hasi ziran beharrak, termiten aurkako tratamenduagaz. Aldiz, ezuste polita bezain aitagarria, goiko pisuko hormearen luzidoa garbitzerakoan agertu zan antxinako bentanea: leiho txikia da, gotiko estilokoa eta ezkutatuta egon da atzen urteotan. Luzidoaren barruan gordeta egon da abadexea eregi zanetik, 1950 urtetik gitxi gorabehera. Barrukaldetik, parrokiaren aldetik, erretauleak ostontzen eban.

Leihoa ekialdera begira dago eta Cembellinen esanetan, "ekialdetik dator eguzkia, Jesus Salbatzailea da eguzki barria eta haren argia jaso eta eleiza barruan zabaltzen da, horregaitik kanpoko partea —abadexera emoten dauana— estuagoa da, harlanduz inguratua, eta barrukoa —parrokiara emoten dauana— zabalagoa, eleizearen barrua argi guztiaz beteteko".

Dirudianez, orain dala hogeitatu urte, erretaulea barritzatu zanean, errestauratzaileak ez ziran konturatu bentana honegaz. "Equipo 7" errestauradore enpresako bozemolearen arabera "zulo bat ikusi genduan, baina erretaulari eusteko zulo bat zala pentsau genduan".

Gaur egun, behin topau eta gero, agirian itxiko da abadexeko gela baten 500 urte baino gehiago dituan bentanea, "jatorrizko eleizearen aztarna"; inguru zuziriz margoztuko da, erretauleagaz bat ez egiteko ohola jarri eta Ipiñaburuko kofradiaren historiaren lekuko aparta izango da bertan ikusgai.

## DUNBA

# Genero Indarkeriaren Kontrako Nazinoarteko Eguna

Gure ikastetxean zemendiaren 25ean andrakanako indarkeria desagertuteko nazinoarteko egunaren aldeko ospakizuna egin genduan.

### Igorreko Inazio Zubizarreta ikastetxeko 6. mailako ikasleak

Egunari hasikerea emon geuntsan, guk hirugarren ziklokoak eskolako beste ikasle batzuri ipuin bat kontetan, asmatutako bertso batzuk botaten eta amaiera emoteko danok batera "Konplize ditut eta" kantua abestuten. Letra guztiak gai honen inguruan, jakina! Baita, munduan gertatzen

diran datu batzuk jaso genduzan. Aitatzearen batzuk:

Mundu osoan egiten diran sexu-erasoen ehuneko berrogeta hamar izaten ei dira hamasei urtetik beheragoko nesken kontra. Seirehun miloe andra, genero indarkeria delituzat hartzean ez dan herrialdeetan bizi dira, munduko andren ehuneko hirurogeta hamarrak bere bizitzan zehar, sexu eraso bortitzen bat

sufridu dau, hirurogei miloe neska

baino gehiago, hamazortzi urte bete orduko kultura batzuetan

ezkontzera behartzen ditue.

Gure eskualdean be, Arratian, andren kontrako indarkeria



Inazio Zubizarreta ikastetxeko ikasleak.



salatuteko Martxa Morea zemendiaren 23an egin zan eta oso arrakastatsua izan zan gainera.

Zergaitik aldarikatu genero indarkeriaren kontrako eguna?

Andren kontrako indarkeria giza eskubidea apurtzea dalako. Arrazoi handia dogu, ez?

### Abestutako bertsoa:

Egun honetan gatoz more koloreko emakume onenak hemen gaudelako berdintasuna gure indarra delako agur indarkeria ondo konpontzeko.



## AGENDEA

ABENDUAK 15  
LEMOA

18:30ean, Arratiako Musika Eskolako gitarrako ikasleen emonaldia. Jubiladuen Etxeko goiko aretoan.

## ZEBERIO

17:30ean, Arratiako Musika Eskolako ikasleen entzunaldia eskola zaharrean.

## IGORRE

Gorbeia Igorren erakusketea Kultur Etxean.

ABENDUAK 16  
DIMA

18:00etan, Dimako Udalak Maraka taldeagaz antolatuta, Bidegin Dima hausnarketa tailerra, langabezia dagozan personentzat. Udaletxeko pleno aretoan.

ABENDUAK 17  
IGORRE

18:30ean, Tokiko garapenerako esperientzien aurkezpena. Hizlaria: Paco Alburquerque. Ekonomia Zientzietan eta Enpresan Dokorea, Madriliko Unibertsitate Konplutensean. Ideak partekatzekeo tartea. Kultur Etxean.

ABENDUAK 19  
AREATZA

21:30ean, Blues Morning singers-en kontzertua The Quiet Corner-en.

## IGORRE

19:00etan, Igitiek antolatuta, Elikadura Subirautzaren Topaketak, *Bide berriak* dokumentala Kiñu Gaztetxean.

## ZEBERIO

18:00etan, Austarri Kultur Taldeak antolatuta, *Xilipurdi gaur* jaia, umeentzako ikuskizuna, plazako ermitan.

20:30ean, proiektzioa "Dolomitak bizikletan eta Lezeko kobazulora jeitsiera". Zeberio jentek egindako ibilbide eta jarduerak, Ermitabarriko Taberna Zaharrean.

ABENDUAK 20  
AREATZA

Bizkaiko Parke Naturaletan, basoko

haragijaleen bideoen erakusketea, Eduardo Bidaurrezagaz. Parketxean.

08:00etan urtekerea, eleiza aurrean. Orozkoko mendiak. Lamino Mendi Taldeak antolatuta.

## IGORRE

Igitiek antolatuta, Elikadura Subirautzaren Topaketak. 11:00etan, azokea; 13:00etan, txoxngiloak El Tenderete taldeagaz, ondoren soka saltoa eta azelga jaurtiketea; 15:00etan bazkaria; 18:30ean, poteoa Gaztetxetik Fabe de Fuka elektrotxarangeagaz.

## LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak eta JB Eguzkitza Meabe Ikastetxeak antolatuta, Turroi Eguna. Ubide. Siskino (858m.).

ABENDUAK 21  
LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, goizeko urtekerea Arratiatik.

ABENDUAK 24  
ARANTZAZU

12:00etan, herritik kantetan; ondoren Olentzerok opariak ekarriko dauz. Gaztainak be egongo dira.

## AREATZA

17:00etan, Guraso Elkarreak antolatuta, Olentzeroren etorrerea plazan.

## ARTEA

17:00etan, plazatik urtenda auzoz auzo Olentzero abestu. Ondoren gaztainak.

## BEDIA

09:30ean, plazan hasita auzoz auzo kantuan; 13:30ean, Olentzero plazan umeak egoteko. Gaztaina erreak.

## DIMA

17:45ean, Olentzero. Eleizako arkupetan.

## IGORRE

12:00etan, Olentzero Mikeletik

## LEMOA

11:00etan, auzorik auzo Olentzerogaz Gabon kantak. Elizondon salda eta txokolatea.

Elizondoko Kultur Gunean Olentzerogaz egoteko aukerea.

## UBIDE

19:00etan, Olentzeroren bila. 20:30ean, Errigora kutxen zozketea.

## ZEANURI

17:00etan, Olentzerori harrerea Piedadean.

## ZEBERIO

17:30ean, Txubelasu Guraso Elkarreak antolatuta, Olentzero Ermitabarrin. Ondoren kalejirea eta txokolatea.

ABENDUAK 25  
LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, urtekerea. Urkiola. Anboto (1.331m.).

ABENDUAK 26  
AREATZA

22:00etan, Hotel Ruido taldearen kontzertua Bixer tabernan.



## Areatzako Banda, Areatzan eta Igorren

Urteari amaierara emoteko kontzertura joateko ohiturea ondo sustraituta daukie billaroztarrak. Areatzako Bandaagaz urteroko zita hau hilaren 30ean, 19:30ean izango da, eleizan. Paula Perez Buenoren zuzendaritzapean Gabon kanta klasiko eta modernoak joko dauz Bandak eta "umore ikutu" bat ez da faltauko kontzertuan. Arratiako Musika Eskolako ikasleak be parte hartuko dabe kontzertuan.

Kontzertu hau, urtailaren 3an be entzun ahal izango da Igorreko Kultur Etxean, arrastiko zazpiretan.

## IGORRE/ZEBERIO

19:30ean, atzen barikua, preso eta errepresaliaduen aldeko kontzentrazioa.

## ZEBERIO

12:30ean, San Esteban jaietan idi probak eta barauskarria Etxazon.

ABENDUAK 27  
ZEBERIO

11:00etan Gabonetako futbol partidua, gazteak gaztearen kontra. Arrankudiagako futbol zelaian. 18:00etan, bola jaurtiketea Ermitabarrin. 20:30ean taloak Ermitabarrin.

ABENDUAK 28  
IGORRE

17:00etan, zinea umeentzat *Friends* euskeraz. 19:30ean, zinea nagusientzat *Lasa eta Zabala*. Lasarte Aretoan.

## LEMOA

20:00etan, pelikulea *La Haine*. Karabie Gaztetxean.

## ZEANURI

17:00etan, zinea nagusientzat *The Road* Kultur Etxean.

## ZEBERIO

19:00etan, zinea *El círculo* pelikulea udaletxean.

ABENDUAK 31  
IGORRE

VI. San Silbestre lasterketea. Mozorrotuta. 11:00etan izen emotea. 11:30ean hasiketea.

## LEMOA

12:30ean, Eneko Zamalloa memoria. Lemoako IV. Gabonetako Lasterketea. Elizondon.

18:30ean "Euskal preso, iheslari eta deportatuak etxean gure doguz" lelopean manifestazioa Etxerat-ek antolatuta. Plaza Gorrian hasita.

## ZEBERIO

09:30ean, Austarri Mendi Taldeak antolatuta, Tontorrandia igoera eta hamaiketako bertan. Zubialdeko plazan.

## IRAGARKI LABURRAK

## SALDU

MASAJEAK EMOTOKO OHATILA  
SALGAI

Masajeak emotoko ohatila saltzean dot, barri-barria, bitan bakarrik erabilitakoa. Tolesgarria, besapean eroatekoa. Prezioa 100 euro. 619 661 841.

## AUTOA SALGAI

Daewoo Tacuma 5 atedun autoa salgai, 11 urte. 106.000 Km. Interesdunak 94 631 79 06 telefonora deitu (Inigo).

## UMEENTZAT AULKIA SALGAI

Bugaboo markako umeen sillea eta pianola funda bi saltzean dodaz. Interesdunak 679 909 869 telefonora deitu.

## VENDING MAKINEA SALGAI

4 urte dituan vending makinea salgai. 279 produktu sartzeako kapazidatea dauka. Interesatuak 645 725 252 edo 606 771 708 telefonora deitu.

## DANERIK

## PISUA ALOKATZEN DA

Pisua alokairuan Lemoan. Logela bi, komun bi, sala handia, sukalde, balkoia eta garajea.

Etxebizitza barria, zonalde onean kokatua. 656 771 662.

## IKASTAROA

Buztinagaz gozatu gura badozu, ointxe dozu aukerea. Helduentzako keramika ikastaroa Igorren, eguazteneko ordu bi, 18:00etatik 20:00etara. Animata bazagoz, deitu 615 731 182 telefonora.

## LANGILE BILA

Urteko eskolara eroateko eta etxea garbitzeko persona euskalduna behar da. 646 600 490 (Eider, Igorre).

## EROSI

## TRIKITIXEA EROSIKO NEUKE

Trikitixa esku soinua erosiko neuke. 653 716 691 (Jon Andoni) telefonora deitu.

**Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com). Mezuak doban dira.**

## Begitu-lagunen txokoa

## Zenbaki honetako saridunak:

**1 Bizkaiko Bertsozale Elkarreak emondako bi sarrera Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalerako.**

Argiñe Larrea (Dima)



**2 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Lasa eta Zabala filma ikusteko.**

Aritz Zubiate (Igorre)  
Anuska Emaldi (Zeanuri)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.


BEGITUK 12

urte eta ehundaka lagun.



## DENPORA-PASA

IMAN OLATU




### EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Ezezaguna ez dana. 2.- Zabor, hondakin. Sufrea. 3.- Birritan, zurumuru. Birritan, korotza. 4.- Orbain, zaldar. 5.- Edo. Birritan, umeen berbetan, ibili. 6.- Fardela. 7.- Zintzo. Egur. 8.- Bokala. Setiatze, inguratze. 9.- Pluralez, ortzia.

### GOITIK BEHERA

1.- Ezetza. Maltzurra, azpizapoa. 2.- Zamaketa, kargaketa. Azken letrea. 3.- Pluralez, nardoa. Selenioa. 4.- Izan aditz jokoan. Zeozer. 5.- Edabe garbi. Mozkortu. 6.- Nitrogenoa. Hodieria, tutueria. 7.- Irabazten dauanari emoten joko. Goragaleak etorri arte ase.



Topau gizakiaren eskeletoan topau leitekezan zazpi hazurren izenak.

B	A	R	A	U	R	I	O	A	B
R	E	S	T	R	O	K	A	R	E
O	T	R	E	M	A	E	S	U	S
M	X	O	N	A	S	N	U	K	O
E	Z	A	B	A	D	O	R	U	N
D	A	U	E	S	Z	I	G	O	D
A	K	R	U	A	U	A	L	A	O
R	A	U	T	I	B	U	K	O	A
I	Z	B	E	H	I	K	O	I	N
G	O	N	P	E	L	U	N	D	A
O	P	U	A	T	X	E	R	A	N
R	I	A	T	S	D	U	B	R	I
K	A	L	D	A	K	A	O	R	A
R	G	E	M	E	D	U	N	E	K
O	S	B	U	T	R	A	M	A	L

# AKI MI KO

BEGITU

# 2014 off

# 2015 on

**Igorren**  
**ARKITEKTOA**  
Aitzol Aurrekoetxea Pujana  
Lehendakari Agirre 23, behea  
aitzol@coavn.org - 675 705 111

**BIXER**  
**TABERNA**  
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

**Jose Luis**  
**Corbacho**  
**pintura lanak**  
Sabino Arana, 3 - 3a  
Igorre 48140 Bizkaia  
Tel: 94-673-70-87  
Tel: 609-79-40-34

**Orre**  
**FOTOKOPIAK - PAPERDENDA**  
L. Agirre, 1.  
48110 Igorre (Bizkaia) - Tel.: 94 673 44 35

**NAIARA** Hartz Klinika  
Lehendakari Agirre, 19  
48140 Igorre  
94 631 52 26

**Recreativos Gubi S.L.**  
Angel Larrea  
Zornotza - Tfnoa 649 86 95 36

*Los Chopos*  
neurri egindako armairuak  
Arda, Los Chopos, 33 (Nigar) Tel.: 94 430 40 94  
**Esposizinoa eta**  
**fabrika Lemoan**  
Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44  
www.armariosloschopos.com

**GARANTXE**  
**Autoeskola**  
TEORIA EUSKARAZ  
ZEIN ERDARAZ  
Balonak: A1, A, B77, B  
Lehendakari Agirre 31  
Tfnoa: 94 673 71 32  
48140 IGORRE (Bizkaia)  
garantxe@vodafone.net

**AKITEGIA**  
**GAY & LORA**  
**IGORRE**

AHOLKULARITZA:  
LEGE-LAN ARLOAN  
**ZUZENBIDE**  
ZERGA ETA DERU KONTUTAN  
ONDASUN HIGEEZINEN  
ASIGURUTAN  
Sabino Arana, 3 Tfnoa: 94 673 71 41 - Faxa: 94 673 94 41 - 48140 IGORRE

**AKESOLO, S.A.**  
GARRAIOAK, NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK  
Garbe, 29 - Telefonoa: 94 673 60 14 - IGORRE-BIZKAIA

**axular**  
kultur obrak  
Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92  
axularke@gmail.com

**ekin s.l.**  
CONSTRUCCIONES  
LAN PUBLIKOAK  
INDUSKETAK  
GARRAIOAK  
UR SAREAK  
SANEAMENTU SAREAK  
BASERRI ETA BASOKO BIDEAK  
PABELLOAK  
URBANIZAZIOAK  
Iturriotz barrena 8 - 48141 Dima (Bizkaia)  
Tel.: 94 631 72 57 Faxa: 94 673 95 25  
e-posta: cbras@construccioneseekin.com

**ARRATIA** AUTOESKOLA  
karneta euskaraz zein erdaraz  
Garbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)  
Telefona: 94 631 36 31 Faxa: 94 673 70 80  
e-posta: unozaku@eskola.net



## ZURIÑE IARRITU AZPITARTE

**Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalean gai jartzaile lanetan ibiliko da Iarritu**

Bertso mundua gai jartzaile eta aurkezle lanetan ibiltzen dan andrazko baten antiojueatik errepasauko dogu. Horretarako, oraintsu Zeanurira biziten etorri dan Zuriñe Iarritu bilboztarragaz egon da BEGITU. Hainbeste urtetako beharrak erakusten dau maite dauala bertsoa. Abenduan 20an Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finala jokatuko da Bilbao Arenan eta bertan ikusi ahal izango dogu, atzenengoz seguruenik. Argi dauka eta daukagu nor dauan faborito, Arkaitz Estiballes bere bikotekidea.

**Irati Urien****Euskera irakaslea izatetik aparte, gai jartzaile eta aurkezlea zara. Zer dala eta zale-tasun hori?**

Ikastolan bertsotan ibili ginan eta gustau egin jatan, orduan Santutxuko bertso eskolara hurreratu nintzan. Bertsotan egiten neban baina lagun artean. Plazan bertsotan egitea ez jatan lar gustetan baina gaiak ipinteko jentea behar izaten zan eta holantxe hasi zan dana, bertso eskolakoai gaiak ipiniaz. Gero Bizkaian eskualdeka egiten dan BBK Sariketarako jentea behar ebela esan euskuen Leire Aurrekoetxea eta biori. Hamasei urtegaz hasi ginan biok BBK Sariketan, eta ordutik segiduten dogu. Bizkaikoan ez naz akordetan lehenengoz noz izan zan, 98koan edo 2000koan.

**Gaiak zeuk pentsetan dozuz edo taldean?**

Desbardina izaten da plazan edo txapelketetan. Plazarako normalean bakarrik pentsetan dodaz, bertsolariak nortzuk diran kontuan

hartu eta saioa nondik joango dan nahiko marketan dozu. Txapelketarako taldea egoten gara, gainera jente barria etorri da. Aurten zazpi gagoz Bizkaikoan.

**Kosta egingo da ba gaiok pentsetea.**

Bai. Niri egia esan momentu honetan asko, batez be txapelketan. Plazan ez horrenbeste. Igaz Euskal Herrikoa izan zan, aurretik Bizkaikoa, eta tartean BBK eta eskolartekoa. Dana batera, behar handia.

**Euki dabe eboluzinorik gaiak?**

Bai. Aspaldian ez dot egin baina orain dala urte batzuk akordetan naz antxinako txapelketaren baten zer egin genduan topau, gaiak irakurri, eta ia ha zelan ipini genduan pentsau, eskas erexi momentu honetan. Baina egia da gaia sano testuinguruan doala. Orain gai on bat dana urte bi barru sano txarra izan leitekela esan gura dot, eta hori sarritan pasetan da. Aktualidadeak asko marketan dau. Egia be bada papel biak sano kontrakoak ipinten zirala lehen, ofizio

danak zu alde eta zu kontra izaten ziran. Atzen urteetan ostera gai bat planteetako joera handia dago, eta ez bertsolariaren papela hainbeste zehaztuteko, batez be zortziko nagusietan. Beste alde batetik, gaigaz esatekoa baino iradokitzekoa zabaldu da gehiago.

**Zelango da bertsolaritzearen osasuna?**

Ona. Ondo ikusten dot. Bertsozale asko dagoz, atzen urteetan asko aurreratu da, txapelketa danean jente asko hurreratu da eta ez txapelketetara bakarrik, jenteak badauka plazako saioetara joateko ohitua be. Baina beste alde batetik bildurra, batez be aurtengo txapelketan. Buruari bueltak emoten ibili naz horren gainean eta ikusten dot neurri baten bertsolarien artean betikoak dagozala. Gazteetatik be Imanol Uri, ezaguna da, urte asko daroaz daborduko eta nire dueda da ia horreen ostean jentea badagoan. Sasoi baten sano talde handia etorrela ikusten neban: Onintza Enbeita, Etxahun Lekue, Arkaitz Estiballes, Eñaut Intxaurrega... danak batera tropelean. BBKn ikusten dot batzuk badagozala baina ez horrenbeste. Bestela osasuntsu, urteetarako egongo dala pentsetan dot. Euskaldun guztiongana helduten dan kontu bat da, igaz BEC bete zan eta orain Bizkaikorako be sarrera kontua sano ondo doa.

**Lau andra eta lau gizon, parekide dator aurtengo Bizkaiko finala.**

Aurreko finalean be holan izan zan, ez naz harritu aurten holan izateagaitik. Poztu egiten naz, orain dala urte askotako txapelketa bat begiratu ezkeroko datu esanguratsu bat da eta. Aurrerapausu bat ikusten

**bardinean, zer sentidu zenduan bere izena esakeran eta berau negarrez ikustean?**

Poztasuna. Askotan gauzak momentuan bizi dodaz. Barrutik bizi dodaz, gaitasuna daukat non nagoan jakiteko, "hau egiteko nago ni hemen". Pasau ostean, irudia ikusten dodanean gehiago emozionetan naz. Igual arraroa da baina nik momentu horretan ardurea daukat. Arkaitz dago bai, baina beste zazpi bertsolari be bai. Iker Casillas eta Sara Carbonerok mosua emon ebeneko zer famoso haretatik denpora gitxira izan zan finala eta jenteak esaten eustan Arkaitz eta bion artean bardina pasauko zala pentsetan ebala. Ba ez. Ez da jentaurrean mosurik ez emotearren, horretarako ez daukat pegarik. Pentsetan dot gai jartzaile zein aurkezleen lanetako bat zortzi bertsolariari bardin egitea dala. Arkaitz dago eta beste asko nire lagun handiak dira, baina horregaitik ez deusat bateri besteari baino hobeto esango. Emozionau arren, aurrera segidu behar neban.

**Etxean entrenetan dozue alkarregaz?**

Normalean ez, eta txapelketa sasoiak gitxiago. Orain dala urte batzuk Larra-betzun entrenetan dabe eta aurten eguazten askotan hona etorten dira Etxahun Lekue, Fredi Paia eta konpainia. Nik normalean eguaztenetan batzara eukiten dot Durangon eta bueltan sutean egoten dira entrenetan. Sekula be ez naz sartuten, ez dodaz gaiak jakin gura.

**Honetan segiduteko asmoa daukazu?**

Ezetz planteetan nabil. Seguruenik plazan bai, pega barik egingo dot. Baina Bizkaiko hau atzena izango dalakoan nago, nahiz eta ezin dan esan inoz ez. Idea hori daukat. Aurreko Euskal Herrikoan sano kantsauta amaitu neban. Batzar asko dira, saio asko... Bizkaikoan amaitu gura nebalako egongo naz bertan, ez neban Euskal Herrikoa nire atzen txapelketa izaterik gura.



## Hotel Areatza

### ★★★ Balneario

Oparia  
topetan

## Olentzerotarako?

Aukeratu gure  
*Opari bonoak*

\* *Logela bikoitza*

\* *Gosaria*

\* *Zirkuitu termala*

56.00€tik aurrera  
pertsona bakoitzeko  
Bez barne

Informazioa eta erreserbak: [info@hotelbalnearioareatza.com](mailto:info@hotelbalnearioareatza.com) - 946572705  
Menu Bereziak zure ospakizunetarako.

*Bazkaria+zirkuitua, masajeak,  
hidromasajeak...*